

FERIXA NAUSIKOAK

**Sukalkien gozoak
Elorrioko jaietako
azken txanpa
jantziko du
zapatuan / 11**

URTEURRENA

**Durangoko Sugarri
fanfarreak egun
osoko egitarauagaz
ospatuko du bere
50. urteurrena / 17**

LEKUAN LEKUKO
anboto

Bizi oso bat bertsotan

Aitortza egingo diote bidea zabaldu eta bihotzetara
ailegatu den bertsolariari. Juan Mari Areitio
irailaren 19an omenduko dute, lurretan. / 2-3



FUTBOLA

**"Elorrioren familia
sentimendu hori jaso
dut. Beste filosofia
bategaz hartzen dute
futbola" / 20**



ANBOTO

DURANGO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA

ZIURTAGIRI OFIZIALA

Deutsch · English · Euskara · Français

MATRIKULA ZABALIK (on-line)

Talde presentzialak eta erdipresentzialak

1. fasea irailaren 1etik 16ra, biak barne
2. fasea irailaren 17tik urriaren 5era, biak barne

Zubiaurrea Kalea, 1, 48200 Durango
015054aa@hezkuntza.net · 946 81 66 45
www.eoidurangoheo.hezkuntza.net

72,36€
Ikasturte osoa
azterketa-deialdi bi



"Makina bat txalo jaso dut eta lagun mordoa egin dut Euskal Herri osoan"

JUAN MARI AREITIO ELKORO BERTSOLARIA

Durangaldeko bertso eskolak 'Basamakatzak urdinsagarrari: Arietiori esker onez' ekitaldia eskainiko dio bertsolari abadiñarrari, irailaren 19an, lurretan

J. Guenetxea / E. Herrera IURRETA Bertsoan egiteko gonbidatu izan dutenean, Juan Mari Areitio (Abadiño, 1945) gutxitan erantzun zuen ezetz. Euskaragaz eta bertsolaritzagaz konprometitu, bere kabuz ikasi zuen errimatzen, lagun artean. Tailerrean, tornuaren zaratak puntua osatzen laguntzen zion. Euskararen alde ereindakoa jasotzen dabil orain abadiñarra. Irailaren 19an, ondo merezitako omenaldia egingo diote lurretan. Xabier Amuriza, Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Miren Amuriza, Onintza Enbeita eta Alaitz Areitio arituko dira bertsoan. Gorka Valdes eta Hektor Folk ere izango dira bertan giroa alaitzen.

Omenaldia egingo dizute hemen, lurretan. Pozik?

Ez neukan horren ilusio handirik, baina bai, eskertzen dut Bertsozale Elkartek egin duen ahalegina. Dudarik barik, orain norberak dauka ardura eta horrek beldur apur bat sortzen du, baina bestela pozik, bai.

Ez da lehenengo omenaldia. Gerediaga auzoan iazko abuztuaren ere jaso zenuen omenaldia. Zer lotura dauka Gerediaga auzoagaz?

Gerediaga auzoan gazte-gazte-rik abestu nuen, 16-17 urtegar. Bertsozale batzuk bazeuden han orduan, Martzial Esterripakoa-eta, bertsozale handiak. Ni ere bertsoan ibiltzen nintzen, apur bat, tabernetan eta lagun artean, eta fama apur bat hartu nuen. Orduan Martzial beti laguntzeko prest egoten zen, ni bultzatzen, bertsoan egin nezan. Eta harexek deitu zidan. Esango nuke Kofradia Eguna antolatzen zutela. Lehenengo, meza entzuten zuten, San Salvadorean, eta gero bazkaria egiten zuten. Bazkarian kantatzeko eskatu zidan. Ni

orduan sekula ibili barik nengoen. Gogoan dut Gaztelutik joan eta han, ermitaren aterpean igota kantatu nituela bertso batzuk. Eta gero, handik urte batzuetara, plazetan-eta hasi nintzenean, sarritan joan nintzen San Salvadorera. Lotura horixe da, eta, horrez gainera, bertan lagunak ditut.

Noiz hasi zinen bertsoan? Zure gaztaroan ez zegoen bertso eskolarik.

Oso gazterik hasi nintzen, ze gure ama zenak-eta bertso zahar batzuk kantatzen zituzten, eta ni baino mutil zaharragoei ere entzuten nizkien. Bestalde, gure amak-eta esaten zuten euskara galtzen zebilela eta Durangon eta beste leku batzuetan ia inork ere ez zuela euskaraz egiten. Eta nik neure artean: 'Joño, euskara galdu? Euskaldunak izan eta euskara galdu?'. Hori buruan neukan beti. Era berean, Abadiñon tabernetan hasi ginenean, lagun artean bertso zahar batzuk kantatzea gauza polita zela pentsatu nuen; gustatu egiten zitzaidan. Horrela hasi nintzen, bertso zahar batzuk ikasita, eta gero baita berriak ere kantatuta. Neure

"Hasieran lagun artean errima bi egiten nituen, eta ekinda, azkenean hiru, edo agian lau"

"Bertso eskolak tabernak ziren. Jendea amorratzen egoten zen bertsoak entzuteko"

artean, lehenengotan, errima bi egiten nituen, eta ekinda, ba, hiru errimara heltzen nintzen, eta gero lau ere egiten nituen inoiz. Lagunekin ere ibiltzen nintzen Gazteluan.

Bertsozale amorratua zinen eta anekdota bitxi bat daukazu Afrikara soldadutza egitera joan zineneko. Han ere bertsoan ibili zinen.

Bai, normala, euskaldun mordoa izan ginen eta: gipuzkoarrak, nafarrak, denerik. Marokoko hiri batean gertatu zen hori, Sifi Ifnin. Kanpamentuan 3.000 mutil inguru egongo ginen, asko euskaldunak, Euskal Herri osoak. Eta han kantina edo taberna zahar handi bat zegoen, ardoa-eta saltzen zuten, eta han elkartzen ginen asteburuetan. Bertan topatu nuen gu baino geroago joan zen Joseba Andoni Enbeita. Bertsoan egin behar, euskaldun artean zer egingo genuen, ba, besterik? Nik ere zeozer kantatu nuen, Enbeitak ere bai, eta bien artean zelan ibili ginen akordatzeko naiz. Puntuka ere ibiltzen ginen eta behin hauxe bota nion: "euskaldunak garela ez egon ahaztuta", eta Enbeita erantzun: "gu hemendik joango gara burutik haustuta".

Gainera, eremu hartako azkeneko soldaduak izan zineten.

Bai, orduantxe amaitu zen hango soldadutza. Espainiak bere hango zatia eman zion Marokori eta akabo.

Omenaldia jasotzean atzera begira jartzeko aukera egoten da. Zelan baloratuko zenuke bertsolari ibilbide hori?

Nire ibilbidea luzea izan da, hasi 14 urtegar eta orain arte. Ez naiz asko ibili plazetan; batez ere Bizkaian ibili naiz. Gipuzkoan txapelketetan eta beste saio batzuetan egon izan naiz.



Juan Mari Areitio.

Zelan aldatu da bertsolaritza mundua zu hasi zinenetik, bertso eskolak oraindino martxan ipintzen hasi aurretik, gaur egungora?

Askok aldatu da. Gure sasoiak, eskolak tabernak ziren. Akordatzeko naiz mutikotan tabernetara joaten hasi ginenean, 15-16 urtegar, tabernan beti egoten zela gizonen bat trago bat jotzen eta zeozer kantatzen. Eta bertsozale asko zegoen orduan; jendea amorratzen egoten zen bertsoa entzuteko, plazetan ez zen ikusten-eta bertsolariarik. Orain laguntasun gehiago dago bertsolariarentzat. Tira, zaletasuna orduan ere bazegoen. Niri asko lagundu zidaten Abadiño inguruko bertsozaleek. Ez ziren asko, baina bazeuden batzuk, eta tabernan edo inguruetan ikusten nindutenean, "benga Juan Mari kantatu, kantatu".

Durango bertso eskola moduko bat sortu zen?

Marisa Barrenak bertso eskola antzeko bat antolatu zuen Durangon, bai. Zapatuetan kuadrilla batzen ginen bertsoan egiteko.

Zelan ikusten dituzu gaur egungo bertsolari gazteak?

Oso ondo. Harrituta geratzen naiz horiek daukaten euskara mailagaz. Guk baino gehiago dakite, gehiago lantzen dute, gauzak modu askotara esateko gaitasuna dute.

Ez zara izan bereziki txapelketetako bertsolaria, parte hartu izan duzun arren.

Ez naiz izan txapelketetako bertsolaria, ez, eta hor ikusten da bertsolari baten neurria. Egon dira oso bertsolari onak txapelketetan atzean geratzen zirenak edo ibiltzen ez zirenak.



Baina hori ez da nire kasua. Ni txapelketetan ez nintzen aurrea pasatzen ez nuelako balio, ez neukalako bertsolaritza ondo landuta. Baina Bizkaian eta Gipuzkoan ere txapelketa askotan ibilitakoa naiz: Idiazabalen, Zaldibian, Añorgan...

Zure iritzian, zein ezaugarri izan behar du bertsolari on batek?

Bertsotan ondo egiteko, alde batetik berezkoa behar da, eta ikasia izatea ere bai. Asko ikasi behar da. Gaztetan pentsatzen nuen asko ekiten niola, baina orain pentsatzen dut gehiago egin behar nuela. Tailerrean nenbilela, beti bertsotan egiten nuen neure artean, tornuaren zarata lagun.

Tornuan zeundela ere bertsotan egiten zenuen?

Askotan egiten nuen bertsotan tornuan pieza egiten nuen bi-

tartean, eta behin baino gehiagotan hondatu nuen pieza horregaitik. Neurrian pasau edo... Eta nik: "Kauen, oin be ederra egin jjuat".

Zeintzuk dira zure plazarik kutunenak? Bai bertsolari legez bertsotan egiteko, bai entzule legez bertsolariak entzutera joateko?

Ba plazarik kutunenak... denak. Batez ere baserri girokoak. Baserri ingurukoak dira politenak niretzat.

Ermitadun auzoak.

Hori! Hori! Hori! onenak, bai bertsotan egiteko bai bertsok entzuteko be.

Bertsolaritzari buruz berbetan gabiltza, zenbat eskaini ote diozun zuk bertsolaritzari, baina bertsolaritzak zuri zer eta zenbat eman dizu?

Bertsolaritzak niri, asko. Makina bat txalo jaso dut eta lagun mordoa egin dut Euskal Herri osoan. Ni ez naiz, zelan esan, lagunak egitekoa, apur bat atzerakoia naiz horretan. Lagunekin aurrera barik beti atzera egiten dut, baina, hala eta guztiz ere, lagun asko daukat Euskal Herri osoan.

Bertsolari ibilbide honetan, badago egin barik geratu zaizun ezer? Badakazu arantzarik bertsolari legez?

Arantzaren bat izatekotan, ez naizela behar den beste prestatu. Sarritan pentsatu dut hori, gehiago landuz gero goratxoago helduko nintzela.

Baina oso bertsolari maitatua zara Durangaldean. Hori sentitzen duzu?

Hori askok esan didate, ez Durangaldean bakarrik, Gipuzkoan ere bai. Amurizak sarri esaten zidan: "Lazkao Txikik asko maite hau".

Hori txapelketa bateko saria baino gehiago izango da.

Asko da, bai!

Jaiotzez abadiñarra zara, baina urte mordoa daramazu lurretan bizi izaten. Zer sentitzen zara gehiago? Abadiñar, iurretarr, bietara?

50 urte pasatxo Iurretan bizi naiz. Hona ezkondu nintzen eta hemen bizi naiz, eta Iurretaz hartu-eman handia daukat, baina oraindino nire zuztarrak Abadiñon daude; Abadiñon baino gehiago, Gazteluan.

Zer esango zenioke Iurretako omenaldi horretara joango den jendeari? Antolatzen dabilen jendeari?

Ba, zer esango diet... eskerrik asko. Eskerrik asko egin duzen lan guztiagaitik.



Areitio bertsotan. XENPELAR DOKUMENTAZIO ZENTROA.



Juan Mari Areitio, Gerediaga auzoko omenaldian. ENEKE LARRAKOETXEA



Areitio eskuman, makurtuta lehenengoa, 1992ko Bizkaiko Bertsolari Txapelketan. XDZ



Areitio, ezkerretik hasita hirugarrena, Euskal Herriko Txapelketan. XDZ

Sagastako eta Miotako bazterrek jantzita ailegatuko da 'Inurri Itsuak' filma

Euskarazko filma Donostiako Zinemaldian estreinatuko dute, urriaren 9an

Ekaitz Herrera DURANGALDEA

Sagastako (Abadiño) eta Miotako (Elorrio) baserri inguruak pantaila handira ailegatuko dira laister. *Inurri itsuak* pelikula sekuentziatariko batzuk bazter horietan filmatu zituzten iazko apirilean, eta lan osoak Donostiako Zinemaldian ikusiko du argia, Zinemira sailean, urriaren 9an. Horren ondoren, filma gainerako zinema aretoetara ailegatuko da.

Pelikula Igor Legarreta zine-magilearen hirugarren lan luzea izango da (*Ilargi guztiak* eta *Cuando dejes de quererme* pelikula egin ditu orain arte) eta Ramiro Pinillaren izen bereko eleberria, *Las ciegas hormigas*, izango du ardatz. Hori bai, pelikula euskaraz filmatu dute. Legarretak berak idatzi du euskarazko gidoia, Andoni de Carlos lagun izan duela (azken



Itziar Ituño aktorea Josefa pertsonaia gorpuzten, Sagastan. INURRI ITSUAK

horrek gidoilari lanak egin zituen *Handia* eta *Faisaien* irla filmetan zein *Altsasu* seriean). Sagastako eta Miotako lokalizazioez gainera, filma Bilbon, Galdakaon, Getxon, Gorlizen eta Mundakan ere filmatu dute.

Hauxe da istorioaren abiapuntua: denborale gogor baten ondorioz, ikatzez beteriko itsasontzi ingeles batek hondoa jo du Bizkaiko kostaldean, eta Algortako bizilagunek urre beltza eskuratzeari ekingo diote. Itsasontziak

hondoa jotzean, Sabas Jauregi pertsonaiak (Urko Olazabal) aukera paregabea ikusiko du ikatza eskuratzeke, baina ikatza hartzea erabaki txarra izan daitekeelakoan dago haren emazte Josefa (Itziar Ituño). Sabasek ekaitz bortitzerantz eramango ditu seme-alabak, eta familiak egundokoak egin beharko ditu eskura dituen aukeren artean; ikatza hartuta neguari aurre egin ahal izango diote, baina baita betirako kondena jasotzera arriskatu ere. "Zoritxarrazko erresilientziari eta gizakiaren biziraupenaren aldeko betiereko borrokari buruzko istorio zirraragarria da, humanismoz beterikoa. Filma landa-giroko western tragiko bat izango da, pertsonaia handiak izango dituen", iragarri zuen Igor Legarreta zuzendariak filmaketa lanetan zebilenean.

Pelikula 1935ean girotuta dago, eta hauek dira parte hartu duten aktoreak: Urko Olazabal, Itziar Ituño, Josean Bengoetxea, Miren Gaztañaga, Carlos Santos, Patxi Bisquert, Unax Hayden, Daniel Cabrera, Kimetz Etxabe, Markel Cocó, Anuk Puertolas eta Elena Uriz.

Euskara ikasteko eskaintzarik osatuena Durangaldeko AEKn

E.H. DURANGALDEA

Durangoko Abarrak, Elorrioko Abizari eta Zornotzako AEK euskaltegiek matrikulazio epea zabaldu dute. Prestakuntzarik osatuena eskainiko dute aurten ere, hizkuntzaren oinarrizko mailatik hasi eta gorenera arte, hau da, A1etik C2 mailara. Klaseak goizez zein arratsaldean antolatuko dituzte, bakoitzari egokiena zaion eran, eta euskararen hutsetik hasi gura dutenek (A1) zein bidean hasita daudenek (A2) prezio berezia izango dute, Eusko Jaurlaritzaren *Euskara Bonua* egitasmoari eskerrak. Euskararen trebatzen hasi gura dutenek behin bakarrik ordainduko dute matrikula, 120 eurokoa, eta lau urteko epea izango dute euskara ikasten joateko. Eskaintzari buruzko zailantzak argitu gura dituenak euskaltegiara jo dezake 10:00-13:30 eta 16:30-19:00 ordutegian.

Era berean, eskualdeko udalek hainbat diru laguntza eskaintzen dute HABEk homologatutako euskaltegiako ikasleentzat.

Adinekoek bizimodu osasuntsua aldarrikatzeko hitzordua dute Bilbon

Hilaren 18an, 12 orduko erronkan parte hartuko dute, oinez zein arineketan



Erronkara batu diren Durangaldeko adinekoak eta Mankomunitateko ordezkariak.

Ekaitz Herrera DURANGALDEA

Irailaren 18an, Bilbok *Activa Bizkaia Erronka* hartuko du, 55 urtetik gorako pertsonen artean zahartze aktiboa eta jarduer fisikoa bultzatzea helburu duen egitasmoa. Bertan,

Durangaldeko adinekoek ere parte hartuko dute, eta honako betebeharrak izango dute esku artean: 08:00etatik 20:00etara, parte hartzaileek jarduer fisikoa egingo dute txandaka. Ordubetik oinez zein 30 minutuz

korrika, Bilboko erdigunean prestatutako zirkuitu batean (Erripako kaia, Calatrava zubia eta Uribitarte pasealekua). Ekitaldia jai eta ospakizun giroan egingo dute, eta bertan izango da, besteak beste, Martin Fiz atleta gasteiztarra, munduko eta Europako maratoi txapelduna izandakoa eta ekimenaren enbaxadorea.

Parte hartzea doakoa da eta izena ematen dutenek kamiseta bana jasoko dute opari. Interesdunek 946 200 546 telefonora deituta (10:00-13:00) edo nagusiak@dma.eus helbidera idatzita eman dezakete izena. Bizkaiko 26 udal eta mankomunitatek, Bizkaiko Sendagileen Elkargoak, EHUK eta Bilbao Talento Fundazioak bat egin dute ekimenagaz. Guztira, 1.800 pertsona baino gehiago batzea aurreikusi dute.

Arazo txikiei irtenbideak bilatuta hasi dute ikasturtea Maristetan

Joseba Derteano DURANGO

Durangoko Maristak Ikastetxean erronka berezi batez hasi dute ikasturtea: egunerokoan sortzen diren arazo txikiei irtenbideak bilatuta. Kartulina bat, globo bat eta material gutxi batzuk erabilita, 32 ikasle taldek irudimena eta talde-lana baliatu behar izan zituzten arazoei irtenbide original eta burutsuak

aurkitzeko. Jardunaldia astelehenean egin zuten, eta, epai-mahaiak hala erabakita, Oinarritzko Lanbide Heziketako mekanizazio ikasleek irabazi zuten lehia. Bestalde, ikastetxeak nobedade bat batu du ikasketa eskaintzara: Fabrikazio Adimenduneko espezializazioa, robotika eta elektronika ikasleek zuzendurikoa.



Astelehenean egin zuten jardunaldia.

Indarkeria matxistaren biktimenezako aholkularitza juridikoa Andragunean

Zerbitzu berria da eta Reyes Goikoetxea abokatuak eskainiko du eguaztenetan

Ekaitz Herrera DURANGO

Andraguneak zerbitzu berriak inauguratuta hasi du ikasturtea, eta Indarkeria Matxistaren Unitateak tresna berri bat izango du aurrerantzean: biolentzia matxistaren biktimei laguntzeko aholkularitza juridikoa. Zerbitzua Reyes Goikoetxea abokatuak eskainiko du eta zalantza juridikoak argitzea izango du helburu. Halantxik iragarri du Jessica Ruiz Durangoko berdintasun zinegotziak. "Zerbitzu berria Andraguneko teknikariek koordinatuko dute kontsulta juridikoak egin gura dituztenei harrera eginez", aurreratu du. Zerbitzua eguaztenetan emango dute, irailaren 16tik aurrera, Andragunean bertan, 15:00etatik 19:00etara. Ikasturteko beste nobedade batzuk ahalduz ikastaroetan topatu daitezke, Andraguneak ikastaro bi antolatu di-



Lariz dorrea, Andragunearen egoitza. DURANGOKO UDALA

tu-eta emakume gazteak erakartzeko: boxeo eta *twerking*-a. Kety Arrabal berdintasun teknikariak argitu du boxeo saioak Andragunean bertan izango direla, eta alde fisikoa zein indarra lantzeaz gainera, ahalduz

eta jabekuntza landuko dituztela. Bestalde, ikastaro berri bat ere aipatu du Arrabalek: Irakurketa Erraza, "urritasunen bat duten herritarrentzat zein alfabetatze berantiarra izan dutenentzat zuzendua". Ikastaro

horretan irakurgai feministak landuko dituzte.

Eskaintzan beste tailer hauek ere badaude: biodantza, antzerkia, kantua, *chi kung*, autoestimua lantzeko saioak, egunero-kotasuneko konponketa lanak, emakume migratuen taldeak zein batukada. Autodefentsa feministarako ikastaroa ere prestatu dute, baina talderen batek berariaz eskatzen badu bakarrik eskainiko dute.

Zahartze aktiborako programa

Andraguneko zerbitzuez gainera, Durangoko Udalak ongizateari loturiko ikastaro gehiago ipini du martxan. Horien artean daude zahartze aktiborako saioak. Programak adinekoen bizi kalitatea eta autonomia bultzatzen lagunduko die 65 urtetik gorakoei, osasun fisikoa, adimenaren lanketa eta hartu-eman sozialak uztartuta. Ohiko ikastaroak mantetzeaz gainera, (memoriaren lanketa, xakea, antzerkia) berrikuntzak eskainiko dituzte: sendabelarrak, atsedeen hartzeko teknikak zein artikulazio gimnasia. Inskripzioak Astarloako egoitzan egin behar dira.

Jesica Ruiz izango da Durangoko PSE-EEko alkategaia



Jesica Ruiz.

J.D. DURANGO

Jesica Ruiz izango da Durangoko PSE-EEko zerrendaburua 2027ko udal hauteskundeetan, alderdi sozialistak jakinarazi duenez. Ruiz 2019tik da sozialisten bozeramailea udalean. Oposizioan egin zuen legegaldi bat, eta gobernu taldeko kide da gaur egun. 42 urte ditu eta Materialen Zientzia eta Teknologian doktorea da. "Ilusioz" hartu du erronka, eta aurrera begira "egiteko asko" dagoela dio. Lehentasunen artean, etxebizitza, Tabirako multikantxa eta adinekoen zentro berria ipini ditu.

Milioi bat euroko inbertsioa Tabiran aldagelak atontzeko

E.H. DURANGO

Durangoko Udalak lehiaketa publikora atera du Tabirako kirolgunean aldagela berriak eraikitzeke obra. Oinarritzko aurrekontua 1.086.774,73 eurokoa da. Proiektu horren bitartez, eraikin zaharra ordezkatzuko dute —txarto zegoen eta jadanik botata dago—, bai udan igerilekuetako beharritza erantzuteko, bai instalazioak urte osoan zehar erabili ahal izateko.

Eraikin berriak lau aldagela kolektibo, mugikortasun urriko pertsonentzako gune egokituak, komunak, lehen sorospenetako gela eta biltegiak izango ditu. Gainera, taberna modura erabiltzeko eraikin independentea ipintzea ere aurreikusi dute. Azken horretan, jendearentzako arreta gunea eta biltegi bat izango dira. Enpresa onuradunak sei hilabete izango ditu obra esleitzen zaionetik lanak amaitzeko. Enpresa interesdunek irailaren 15era arte aurkeztu ditzakete eskaintzak.

LABUR-LABUR

Padel txapelketarako deia

Sanfaustoetako padel txapelketa irailaren 18an hasiko da eta antolatzaileek izena emateko epea zabaldu dute. 32 bikote hartuko dituzte gehienez. Inskripzioa inforpadelzaleak@gmail.com helbidean egin daiteke.

Naiz Market zapatuan

Irailaren 12an, Naiz Market azoka egingo dute Zumalakarregi kalean, 10:30etik 20:30era. Sortzaileen artean, Halo, Aratz Gallery & Denda, Ghambra atelier, Vikita, Bloosi, Amakima/Petit Goxo, Maldita Valina eta Harri Koskor egongo dira.

Txosnen iragarpena

Durangoko txosnetan honako talde edo ikuskizunak egongo dira aurren: Maritxu eta Igurtzi, Moonshinerds, Sedientos de Cumbia, Marte Lasarte, Katu, Fosil, Broken Brothers Brass Brand, Kene. MP3, Skaregekasko, Alarma Morea, Aimar Z, The Iiingles, Xaukena Xauk, MJ PQ, Siwanaba eta Putas Amak.

Zaldibartarren ahotza eta testigantzak jaso dituzte 'Zalduko urak' antologian

Zaldibarko argitalpenen bilduma da, herriaren bilakaera aztertzeko baliagarria

Ekaitz Herrera ZALDIBAR

Gaizka Zabartek eta Joseba Sarrionandiak *Zaldibarko berbeta eta literatura: Zalduko urak* liburua kaleratu dute Pamiela argitaletxeagaz. Saiakera zaldibartar askoren ahotsagaz ondute, XX. mendetik honako herritarren argitalpenak eta testigantzak bildumatu dituzte-eta bertan. Zabartek adierazi duenez, irakurleak "ipuinak, antzerkiak, erreportajeak, bertsoak, testu historikoak eta margolanak" topatuko ditu orrialdeetan zehar: "Esan daiteke liburua antologia bat dela, zaldibartar askoren obra kolektiboa. Azken 125 urteotan udalerria zer izan den eta gaur egun zer den erakusten du. Bost-sei belaunaldiren ahotsak daude jasota oso modu desberdinetan". Antologia hori optika euskaldun batez eginda dagoela nabar-



Liburuaren azala. PAMIELA

mendu du idazleak. "Liburuak hartzen duen denbora-lerroa Zaldibar guztiz euskalduna zenetik gaur artekoa da. Hor euskarak izandako desplazamendua eta horren aurrean zaldibartarrek erakutsitako erresistentzia age-

ri dira", gaineratu du. Liburuaren aurkezpen publikoa irailaren 16an egingo dute, eguaztenean, Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan, Plaza Barrian. 11:00etan izango da. Aurrerago, urriaren 7an, Zaldibarren bertan egingo dute aurkezpena. Ekitaldi bat prestatzen dabilta horretarako. Liburuko eduki batzuk eszenaratuko dituzte. Ekitaldia ospitaleko kaperan izango da. Liburuaren aleren bat erosi gura dutenek dagoeneko badute horretarako aukera. Eskualdeko liburu-dendetan zein Interneten dago salgai.

Zaldibarkoa bigarrena da eskualdeko udalerrietako antologiaren artean. 2024an kaleratu zuten lehenengoa, Iurretakoa, *Iurretako berbeta eta literatura: sator hegalaria* izenburupean. Etor-kizunean, udalerrri gehiagotako antologiak kaleratuko dituzte.



Bizkaiko taldekako kanporaketa, Gernikan. BERTSOZALE ELKARTEA

Zornotzak Bizkaiko Bertsozaleen Eguna hartuko du zapatu honetan

Egunean zehar, Bizkaiko Taldekakoen finalaurrekoak eta finala jokatuko dituzte Xiberu eta Propi tabernetan

Ekaitz Herrera ZORNOTZA

Bizkaiko bertsozaleek hitzordu berezia izango dute zapatu honetan Zornotzan. Bizkaiko Bertsozaleen Eguna ospatuko dute eta egitarau horren zati izango dira Bizkaiko Taldekako finalaurrekoak eta finala. Herrialdeko sei talde ailegatu dira finalaurrera; tartean, Durangaldeko bi: DurangALDUEK eta Lirio loreak.

Egunari behar den moduan ekiteko, Xiberu tabernan ipini

dute hitzordua. Txabirenean batuko dira denak, 11:30ean.

Durangaldeko talde bik parte hartuko dute, DurangALDUEK eta Lirio loreak taldeek, hain zuzen

Segidan, 12:00etan, lehenengo finalaurrekoa jokatu dute DurangALDUEK (Durangaldea), Haritz eta Itsasok (Busturialdea) eta Far Westeko bertsozaleek (Enkarterriak, Ezkerraldea eta Meatzaldea).

Bigarren finalaurrekoa 13:30ean hasiko da. Bertan, Bypasseu (Busturialdea), Lirio loreak (Durangaldea) eta Karidadeko masokistak (Algorta, Getxo eta Uribe Kosta) lehiatuko dira.

Bazkaria Propi jatetxean egingo dute, 15:00etan, eta final handia bazkalostean jokatu dute bertan. Otordurako sarre-rak erosteko epea amaituta badago ere, ale batzuk eskuragarri daude oraindino www.bertsosarrerak.eus atarian. 39 euroan daude salgai.



Kittu taldea.

Gastronomia eta musika Ogenbarrenako jaien ardatz

A. M. ZORNOTZA

Irailaren 18an hasiko dituzte, ofizialki, Ogenbarrena auzoko jaiak, 18:00etako txupin jaurtike-tagaz. DJ Zirkinek girotuko ditu festa eta tortilla txapelketa. Bestalde, zapatuan, irailak 19, egun osoan zehar izango dute zer egin auzokideek. Lehiaketa gastronomikoa izango da egunaren ardatza, baina erromeriek ere garrantzi handia izango dute: Kittu eta Sugaar taldeek doinu dantzagarriak joko dituzte. Steepers taldeak ere emango du kontzertua; talde beteranoak hard rock doinuak plazaratuko ditu. Karta-joko zaleek mus txapelketan lehiatzeko aukera izango dute, 17:00etan.

Domekan ere egongo da jaiatz gozatzeko aukera. 11:00etan hasita, merkatu solidarioa egongo da, eta 11:30ean dantza kubatarak eta txistulariak. 15:00etan emango diete amaiera jaiari, txoripintxopotearen ondoren, hain zuzen ere.

XXV. Txistu Eguna

Aipaturiko ekitaldi sortaz gainera, antolatzaileek zapatuko (irailak 19) Txistu Egunaren 25. edizioa azpimarratu dute. Zornotzako Udabarri dantza taldea izango da protagonistetarikoa bat arratsaldeko ekitaldian (18:00), taldearen 60. urteurrena dela baliatuta.

Berrizko Merkatarik Elkartek Bizi Berriz kanpainaren beste edizio bat antolatu du



Herriarrei parte hartzeko deia egin diete.

A. M. BERRIZ

Uda agurtu eta ikasturte berriari ongi etorria emateko, Berrizko Merkatarik Elkartek Bizi Berriz ekimenaren beste edizio bat antolatu du. Aurten ere, musikaz girotutako sari-erruleta egongo da Olakueta plazan, hilaren 19an, 17:30etik 20:00etara.

Bertan parte hartzeko, 2026ko irailaren 1etik 19ra arteko erosketa tiketak aurkeztu beharko dira, hau da, kanpainara atxikitako establezimenduetako 10 euroko gutxieneko erosketa tiketak. Sariak, izakinak amaitu arte egongo dira. Sarien artean, 50 eta 10 euroko erosketa-bonuak, ostalaritza bonuak, zinemarako bonuak eta aterkiak banatuko dira. Kanpaina hau Berrizko Merkatarik Elkartek herriko merkataritza bultzatzeko eta indartzeko kanpainen barrukoa da.

Garazi Bedatsek autoezagutzarako lau saioko tailerra emango du

A. M. ATXONDO

Garazi Bedatsek lau saioko tailerra emango du Atxondoko herrian, autoezagutza eta "mugimendu kontzientean" sakontzeko. Bedatse fisioterapeuta (uroginekologian aditua) eta irakaslea da. "Zoru pelbikoa eta haregaz lotura duten egiturak eta sistemak ezagutuko ditugu, anatomia eta fisiologiatik abiatuta, gorputz-kontzientziaren, arnasketaren eta mugimenduen bitartez. Ezagutza eta tresna horiek eguneroko bizitzako gorputz-jarreretan eta jardueren fisikoan praktikan ipiniko ditugu", azaldu du Bedatsek. Saiok irailaren 19an eta 26an, eta urriaren 17an eta 24an izan-

go dira, 10:00etatik 11:30era, erabilera anitzeko gelan. "Gorputzek historia dutela ulertze-tik abiatuta, generoa, osasuna, plazera eta zaintza ipiniko ditugu erdigunean, ikuspegi feministatik", gaineratu du.

Tailerrean parte hartzeko interesa dutenek liburutegira edo udaletxera joan beharko dute izena ematera. Internet bidez ere egin daiteke hori. Hain zuzen ere, webguneak berak Atxondoko Berriztasun Kontseilu Herriarrik antolatzen duen beste jardueren berri ere ematen du. Hurrengo tailerra *Gure hilekoak. Espazio intergenerazionala* deiturikoa izango da.



www.anboto.org

UDAKO ARGAZKI LEHIAKETA

2 KATEGORIA
4 SARI

**DURANGALDETIK
KANPOKO
ARGAZKIAK**



**DURANGALDEKO
ARGAZKIAK**

EPAIMAHAIAREN
SARIA
SMARTBOX BAT

ARGAZKI
BOZKATUENAREN
SARIA
**XIAOMI
SMARTWATCH
BAT**

**PARTE
HARTU**



EPAIMAHAIAREN
SARIA
**ERRIGORAKO
OTZARA BAT**

ARGAZKI
BOZKATUENAREN
SARIA
**HARIRIK
GABEKO SONY
ENTZUNGAILUAK**

Ekaitz Herrera IURRETA

Iurretako Kofradiek eta Maiztegi ikastetxeko kideek *Betilora* karta-jokoa sortu dute, udalerriko naturguneen balioaz jabetzeko eta horietan bizi diren izaki bizidunak ezagutarazteko. Jokoa 48 kartaz osatuta dago, eta udalerriko bazterretako askotariko narrastiak, onddoak, landareak, anfibioak zein ugaztunak ageri dira txartelik txartel. Argitalpenak helburu bikoitza dauka: jolastu bitartean, tokiko espezieen dibulgazioa bultzatzea. "Animalia espezie batzuk besteak baino ezaguna goak egiten zaizkigu, eta, sarri, gure inguruetatik urrun bizi diren animalien izenak bertakoak baino errazago ikasten ditugu", azpimarratu dute egileek. Egoera horri erantzuteko sortu dute, hain zuzen ere, *Betilora*.

48 karta horiek familiak dau de antolatuta, zortzi izaki bizidunek osaturiko sei familiatan. Edo beste era batera esanda, Iurretako sei kofradietako bakoitzetik ekosistema bat hautatu eta bertan bizi diren animalia eta landare espezieak ekarri dituzte kartetara: eko-



Kofradietako ordezkariak, Maiztegi ikastetxeko kideak eta karta-jokoaren egilea.

'Betilora' karta-jokoa sortu dute Iurretan, herriko bioaniztasuna ezagutarazteko

Jokoa Eñaut Aiertzaguenak egin du. Kofradiek eta Maiztegi ikastetxeak sustatu dute

sistema bakoitzeko ugaztun bat, hegazti bat, narrasti bat, anfibio bat, ornogabe bat, belar edo landare bat, zuhaitz edo zuhaixka bat eta onddo bat. Jolasa

kofradiek eta Maiztegi ikastetxeak bultzatu duten arren, irudi, diseinu eta testuen lan-keta Eñaut Aiertzaguenak egin du. Iurretarrak azaldu duenez,

ahalegin berezia egin dute izaki bizidunak tokiko euskarari, Iurretakoan, ipintzeko. "Kartek tokiko izendapena ageri dute beltzez. Azpialdean euskara

batuan ageri da izendapena, eta beherago izen zientifikoa", argitu du Aiertzaguenak. Era berean, Iurretako dantzarien ekosistemaz ere berba egin du iurretarrak: "Esan daiteke Iurretako dantzariak ekosistema propioa osatzen dutela. Horiek ere badute lekua kartetan".

Zelan jokatu

Jokoaren funtsa erraza da: ekosistema bakoitzeko espezie guztiak batu eta familia osatu behar dute jokalariek, eta, horrenbestez, familiarik gehien osatzen duenak irabaziko du. Alabaina, beste hainbat modutara ere jokatu ahal izango da. Adibidez, bakarka, karta edo espezie bakoitzak bere bizitokia duelako, eta hurrenkera zuzenean ipiniz gero puzzlea osatuko delako. Era berean, memoria-jolas legez ere erabili daiteke, kartak ahuspezi ipini eta bakoitza non gordetzen den asmatuta.

Jolasean hasi gura duenak Laixiar egunean eskuratu ahal izango du *Betilora*, domeka honetan, 15 euroan. Hortik aurrera, jokoa Iurretakopin eta Durangoko Hitz liburu-dendan erosi ahal izango da, 20 euroan.

Mañariko alkateordeak dimititu egin du, trafikoko arau-hauste bategatik

J.D. MAÑARIA

Agustin Sarrionandiak, Mañariko alkateorde zenak, zinegotzi kargua utzi du trafikoko arau-hauste baten erantzukizuna bere gain hartu eta gero. Naiz hedabideak eman zuen gertakariaren berri, joan zen barikuan. Alkateorde ohiak hedabide horretan azaldu zuenez, erabakia "erakundearen duintasuna" eta "EH Bilduren izen ona" babes-teko hartu du, eta "egoera pertsonal batek herritarren onerako egiten den lanean eraginik izan ez dezan".

Mañariko Udalak Sarrionandiaren erabakia "errespetatzen" duela adierazi zuen ohar batean: "Bereziki nabarmendu gura du egoeraren aurrean erakutsi duen ardura, gertatutakoaren erantzukizuna bere gain hartuta eta kargu publikoa uzteko erabakia hartuta". Era berean, udalak eskerrak eman dizkio Sarrionandiari "orain arte Mañariko herriaren alde egindako lanagaitik".

Ikastaro eskaintza zabalean parte hartzeko aukera Mañarian

J.D. MAÑARIA

Mañariko Udalak ikastaroen eskaintza zabala ipini du herritarren zerbitzura. Ikastaro batzuk berririo egingo dira: pilates, GIM entrenamendu gidatua, mantentze-gimnasia eta yoga. Beste ikastaro bi berriak dira: entrenamendu funtzionala eta 'cardio strong'.

Ikastaroetarako izen ematea irailaren 21etik 25era da. Mañariarrek izen emate aurreratua dute, irailaren 18an. Prezioei dagokienez, astean saio bat 10 euro da eta astean saio bi, 20 euro. Familia gurasobakarrek, familia ugariak, ikasleak, langabeak, erretiratuak eta aniztasun funtzionala dutenek %20ko deskontua izango dute. Ikastaroetan baja emateko aukera abenduaren 28tik 31ra bakarrik egongo da. Aipatutakoek gainera, jostintza ikastaroa ere badago aukeran; urriaren 8an hasiko da. Ikastaro guztiei buruzko informazioa mañaria.eus atarian eskuratu daiteke.

Otxandioko turismo bulegoak 136 bisitari erregistratu ditu aurten

A.B. OTXANDIO

Azken urteetako joerari eutsita turista kopurua egonkortu egin da Otxandion. Aurten kokapen berria izan duen bulegoak 136 bisitari erregistratu ditu, uztaila eta abuztua bitartean. Estatu Espainiarretik hurbildutako bisitariak izan dira asko, Madril, Lleida, Granada, Extremadura, Tenerife, Zaragoza eta Herrialde Katalanetatik etorritakoak, hain zuzen ere. Hala ere, Eskozia, Alemania, Belgika, Ingalaterra eta Herbehereetatik ere hurreratu dira turismo bulegora, Otxandiori buruzko, eta, Urkiola zein Gorbeaiako parke naturalei buruzko informazio bila. Beraz, guztira, Euskal Herritik kanpoko 40 pertsona erregistratu ditu turismo bulegoak.

Ia beste horrenbeste euskal herritar sartu dira udako hila-bete hauetan udaletxearen alboan egokitutako turismo bulegora. Durangaldetik ez ezik, Audio, Bilbo, Usansolo, Orozko eta Gasteiztik, besteak beste. Bestalde,

turismo bulego berriak erakarrira bertaratu dira baita hainbat otxandiar.

Plaza Nagusian kokapen berria izan du turismo bulegoak aurten. Eta lokal horretan behin betiko lekua izatea gura du udalak. "Arreta modu egokiagoan emateko aukera eskaintzen du", azaldu du Egoitz Garmendia alkateak.



Turismo bulegoak kokapen berria du.

Iurretako kofradiek 53. Laixiar Eguna ospatuko dute domekan

A.B. IURRETA

Iurretako Kofradiek euren egun handia izango dute domekan. 53. Kofradi Eguna izango dute herriko sei kofradiek –San Marko, Fauste, Goiuri, Santa Maña, Iurreta eta Orozketa– Laixiar zelaian, Iurretako Kofradien Batzordeak antolatuta. Axmoken ikurrina jartzeko hitzordua ipini dute, 11:00etan. Ondoren, kofradietako ordezkariak Batzar Nagusia egingo dute. Urteko kontu ematea 12:00etan hasiko da. Lanak amaituta, eta usadioari jarraituta, jai giroa izango da nagusi Laixiarren.

Dantzarien erakustaldia egongo da, eta herriko trikitilariak bazkalaurrea girotuko dute. Arratsalderako plana ere egin dute. Igel jokoa antolatu dute, eta Triksi eta Diksi musika jarraileak bazkalosteko orduak alaituko dituzte. Bertsorako tartea ere izango da, antolatzaileek jakinarazi dutenez. Egunean zehar pernil-jokoa egingo dutela gaineratu dute.



GREMIOEN *gida.*

Iragarkia ipini gura
baduzu, deitu
688 731 402 zen-
bakira

DEKORAZIOA



JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko
altzairuen lakadura eta
guztietako zaharberritzeak
egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A - BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 - Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com

ZURGINTZA



leike

Eraberritzeak
Interiorismoa
Aroztegia

NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



www.leike.eus
Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf: 94 681 72 29

ZURGINTZA



ATERPE ARLOTZAL

EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar
635 74 84 65
www.carpinteriaaterpe.com

ELEKTRIZITATEA



ELECTRICIDAD JON

622 684 284
electricidadjon@outlook.es

ITURGINTZA



INSTALATZAILE BAIMENDUA

659 673 790
unaigaray@yahoo.es

Okm batzen gaituen distantzia

ANBOTOKIDE


IRAILEKO ZOZKETAK



Alcamporen eskutik Euskal produktuz osatutako otzara.



BASA take away jatetxeko KMO haragidun eta ogi artisaudun hanburgesa eta bi saltsadun patata errazioa opari. Bariku eta zapatu gauean gozatzeko.



Xiberu taberna (Zornotza) bi gosari bikoitz.



Aukan izozkiak. 6 izozki edo etxera eramateko 1/2 litroko 2 tarrina. (Durango)

EGIN ZAITEZ ANBOTOKIDE
ETA PARTE HARTU
GURE ZOZKETETAN!



Kirol eta kulturako gizarte bonuak urte guztian eskatu ahal izango dira Abadiñon

Udalak ez du gura "baldintzak betetzen dituen inor laguntzarik barik geratzerik"

Maialen Zuazubiskar ABADIÑO

Abadiñoko Udalak kirol eta kulturako gizarte bonuen oinarri arautzaileak aldatu ditu, herri-tarrei udal laguntza hauek eskuratzeko "aukerak errazteko eta zabaltzeko asmoz".

Orain arte, interesdunek epe jakin batean egin behar zuten eskaera, baina orain ez dago epe zehatzik eskaera aurkezteko.

Udalaren ustez, gizarte laguntza batek pertsonen zerbitzura egon behar du, eta ezin da oztopo administratibo bat izan. "Ez dugu gura baldintzak betetzen dituen herritar bakar bat ere udal laguntzarik barik geratzea epe amaitu delako, aukera hori eza-gutzen ez zuelako edo bere egoera aldatu delako. Administrazioak gertukoa eta malgua izan behar du, eta herritarren benetako beharrianei erantzuteko gai izan behar da", esan du udalak.

Orain arte legez, bonu hauek pertsonalak eta besterenezinak izaten jarraituko dute, eta urte beteko epea izango dute. "Al-daketa honegaz, Abadiñok per-sonak erdigunean ipintzen

dituen gizarte politikagazko konpromisoa indartzen du, Administrazioa herritarren benetako beharriazetara ego-kituta", gaineratu dute ohar batean.



Abadiñoko kiroldegia.

Pijama eta kamisoi eguna eta patata dantza Aitte Kurutzeko jaietan

M.Z. ABADIÑO

Irailaren 11tik 14ra bitartean, Aitte Kurutzeko jaiak ospatuko dituzte Abadiñon. Gaur emango diete hasiera jaiei, pijama eta kamisoi egunagaz. 19:00etan txopoa altxatuko dute, 20:00etan parrillada egongo da, eta Errota Erromeria Taldea. Ondoren, patata dantzak egongo dira, umeena (21:30) eta nagusia

(00:00). DJ Bullek ipiniko du musika.

Irailaren 12an, zapatuan, tortilla txapelketa eta Manex Astigarragaren monologoa egongo dira. Eta domekan, irailaren 13an, mozorro eguna. Arratsaldean, 16:30ean, Eingo erromeria taldea egongo da. Aitte Kurutzeko egunean amaituko dituzte jaiak, irailaren 14an.



lazgo patata dantzako argazki bat.

Mallabiko Udalak diruz lagunduko ditu euskara ikastaroak

M.Z. MALLABIA

Mallabiko Udalak martxan ipini du 2025-2026 ikasturtean euskara ikastaroak egin dituzten herritarrei zuzenduriko beken deialdia. Udalak jakinarazi duenez, ekimenaren helburua helduen artean euskararen ikaskuntza bultzatzea eta udalerrian euskararen ezagutza eta erabilera handitzen laguntzea da.

Udalak 3.000 euroko diru partida ipini du laguntza hauetarako, eta hauek izango dira onuradunak: Mallabian erroldatuta dauden eta udal euskaltegietan, euskaltegi pribatuetan edo homologatutako barnetegietan euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak egin dituzten pertsonak. Laguntza hauek jaso ahal izateko, onuradunek %75eko asistentzia beterik izan behar dute gutxienez.

Eskabideak aurkezteko epea urriaren 30ean amaituko da.

Joseba Derteano ELORRIO

Elorrioko Ferixa Nausikoen bigarren eta azken asteburuan egitarau zabala egongo da gozagai. Musika izango da bariku eta zapatu gauerako pizgarri nagusietariko bat, eta zapatuan Sukalki Eguna ere hartuko du protagonismoa.

Bariku gauean, suzko zezena- ren ondoren, Los Zopilotes Txirriaos taldeak kontzertua eman- go du Ganondon. Aurretik, Arriolan Bilboko Ganbera Abesbatza eta Orkestra arituko dira. Euren errepertorioa: ope- ra eta zarzuela.

Zapatuan Sukalki Eguna izan- go da eguneko hitzordu nagusietariko bat. Iturrizoro Elkar- teak antolatuta, Aldatsekua janari usainez beteko da, eta parte-hartzaileei mozorroa jan- tza etortzeko deia egin diete. Egun osoan zehar haur parkeak eta txu-txu trenea izango dira, eta eguerdian bits jaia egingo dute plazako frontoian.

Arratsaldean ere ez da girorik faltako; besteak beste, karrozen jaitsiera, Kaletriken plaza-dan- tzak, txokolatada eta Disko Sound 4 taldea egongo dira. Gauean, suzko zezenaren ondo-



Sukalki eguna Ferixa Nausikoetako ekimen jendetsuenetakoa izaten da urtero. LUCIA MERUELO

Kontzertuak eta Sukalki Eguna izango dira protagonista Ferixa Nausikoen azken txanpan

Besteak beste, Los Zopilotes Txirriaos taldeak zuzeneko eskainiko du barikuan

ren, DJ Kene.mp3, DJ Sierritz eta DJ Delko arituko dira plazan, eta Sukar Taldeak erromeria egingo du Urarkan. Gauerditik aurrera, jai giroak aurrera jarraituko du txosnagunean, askotariko DJekin.

Domekan emango diete amaie- ra aurtengo Ferixa Nausikoei. Azken jaiegunean ere izango da zegaz gozatu. Elorrioko Ko- lore eta Zaporeak Kulturarteko Jaia egingo dute Kanpokalen, eta plazan herri kirolen era-

kustaldia izango da. Bertan, harrijasotze, aizkora, iparral- deko joko eta trontza saioak izango dira. Arratsaldean bertso saioa izango da Aldatsekua plazan, Txaber Altube, Sustrai Colina,

Oihana Bartra eta Miren Arte- txegaz, Maite Berriozabal gai jartzaile dela. Ferixa Nausikoei amaiera emateko, 19:30ean, HAATIK Dantza Konpainiak *Ioi* ikuskizuna egingo du plazan.

Alkohol prebentzio zerbitzua

Mankomunitateak, Elorrioko Udalagaz elkarlanean, alkoho- laren kontsumoari eta arriskuen murrizketari buruzko prebentzio kanpaina egin zuen Ferixa Nau- sikoetako lehenengo asteburuan. Guztira, 276 gazteri eskaini zieten arreta, 148 emakumeri eta 128 gizonezkeri. Mankomu- nitateko iturriek azaldu dutenez, aurtun 18 urtetik gorako kua- drillak topatu dituzte gehienbat, eta galdekatuetatik 47k adiera- zi zuten ez dutela alkoholik kontsumitzen.

Prebentzio lantaldea herriko hainbat gunetan ibili zen, hala nola hilerri gaineko frontoian, osasun zentroaren inguruan, barraketan eta eliza inguruan. Sentsibilizazio lana osatzeko, arriskuak prebenitzeko mate- riala banatu zuten: 250 preser- batibo eta larrialdietako tele- fonoak biltzen dituzten 250 informazio orri.

Mirandaola eta Arrikrutz ezagutzeko txangoa Garain

E.H. GARAI

Trumoittek Mirandaolako burdi- nola (Legazpi) bisitatzeko txangoa antolatu du irailaren 19rako. Bi- sita goizean egingo dute, ola mar- txan dagoela, eta, bazkaldu eta gero, Arrikrutzeko kobak (Oñati) bisitatzera joango dira. Irteerara- ko hitzordua Garaiko plazan egin dute, 10:00etan. Izen ematea 688 674 564 telefonoan egin daiteke.



Mirandaolako ola. MIRANDAOLA FUNDAZIOA

Hamaika ekintza Gertufest jaialdiaren bueltan Izurtzako jaietan



Santo Tomas parkean ospatuko dute Gertufest jaialdia.

J.D. IZURTZA

Izurtzako jaietako bigarren asteburuan, Santo Tomas par- keak eta bertan ospatuko den Gertufest jaialdiak hartuko dute protagonismoa.

Barikuan 17:30ean hasita eta zapatuan goizetik eguerdira, askotariko ekitaldiak egongo dira bertan. Artisau azokagaz gainera, piknik lehiaketa ere egongo da. Azken hori zapatuan izango da, 14:00etan. Izen ema- tea parkean bertan egin ahal izango da. Lau sari banatuko dituzte.

Sentitu · Konektatu · Ospatu
Zuretzako espazio bat, taldean partekatua

Biodantzaren ATE IREKIAK

Erreserba egin: 626 661 292
Mentxu Arjonilla

Doako saioa
Elorriko irailak 23an, 18:30etan
Biodantzaren bideratzaile didakta

BOSCH Service Bosch Car Service Urkilan

KMO SALMENTA

SALMENTA KMO

TAULERRAREN ORDUTEGIA

Asistimendik ostegunera	8:30 - 13:00
14:30 - 19:00	
Cutaketa	8:30 - 19:00

URKILAN

Urkizauran 39, Elorrio
Tel.: 946 820 237

- KMO autoen salmenta
- Mekanika orokorra
- Elektronika
- Aire ginetak R134A eta 1234yf
- Gurpilen aldaketa
- IAT aurretiko azterketa
- ADAS programazioa
- Kaja automatikoen dialisia

Esperientzia eta teknologia ZURE ZERBITZURA

ZERBITZU PROFESIONALA Konfiantza duzu

BOSCH KALITATEA Berritua eta segurtasuna

IRAUPEZKO KONFIANTZA Guretzat, beti

Manzisor, hileko Anbotokidea

Azken hiletan, Lacturalegaz lan-kidetzan esneki-sorta zotz egiten gabiltza Anbotokideen artean. Abuztuko Anbotokidea Miren Manzisor izan da. Zuk ere Manzisorren moduan sari paregabe hau irabazi gura baduzu, sartu QR kodean eta bete inprimakia. Anbotokidea ez bazara, lehenengo egin zaitez Anbotokide, eta ondoren parte hartu.



DURANGALDEA ASTEON

Anboto 'Egunean Behin' jokoaren 22. edizioko babeslea izango da

DURANGALDEA Astelehenean Egunean Behin jokoaren 22. denboraldia hasiko da. Tribial estiloko galdera-erantzunen jokoa da eta parte hartzaileek egunean partida bakarra jokatzeko aukera dute. Edizio honetan ANBOTO bertako babesle izango da eta azaroan sari bi emango ditu.



Silvia Triguerosi buruzko 'Tor' dokumentala ikusgai Mañarian

MAÑARIA Iñaki eta Mikel Urresti anaiek Silvia Triguerosi buruz egindako 'Tor' dokumentala ikusteko aukera egongo da gaur, irailak 11, 18:30ean, Mañarian. Emankizuna Mañariko Kultur etxean izango da, hirugarren pisuan. Ondoren, Triguerosen berba egingo du.

Udako Argazki Lehiaketa bozketa fasean sartuko da irailaren 14tik 21era

DURANGALDEA ANBOTOk antolatzen duen Udako Argazki Lehiaketa azkenengo fasera pasatuko da astelehenean, bozketa fasera. Irakurleek udan ateratako argazkiak jasotzen ibili gara orain arte, eta orain argazkirik politenak aukeratzeko unea da. Sartu www.anboto.org-n eta eman zeure botoa.



Aurtengo lehiaketako argazki bat.

GUTUNAK

Zure gutuna helarazteko helbidea: Bixente Kapanaga 9 - lurreta
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO: Izen-abizenak / Telefonoa /
/ Helbidea / Nortasun Agiriaren zenbakia.

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

POLITIKAN

'Zezenak Dira' Durango dira



CARLOS GARCIA
PP

Urte asko daroat, goizeko zapi eta erdietan lepoko zapia jantzita, zezenaren aurretik korrika Alde Zaharreko kaleetan zehar. Eta gaur gehiengo gara udaletik hori babesten dogunok, Zezenak Dira ikus-kizun hutsa baino gehiago dalako, tradizino bat dalako, Zezenak Dira Durango bera dalako.

Badagoz 1546ko dokumentuak tradizino honi buruz berba egiten dabenak, ia 500 urteko historiagaz. Durangarren belnaldi osoak une honi itxarun hazi dira, txikitatik goiz jagita euren gurasoak, neba-arrebak edo auzokideak zezenaren aurrean errespetuz eta ausardiaz ikusteko. Hori ez da bulego batean asmatzen, ez eta dekretu batez ezeztatzen; hori herentzian jasotzen da.

Horregaitik, mingarria izan zan ikustea zelan, pandemia aitzakia hartuta, Bilduk Zezenak Dira eten ebazan. Osasun-aitzakia etorri eta joan egin zan, baina susmoa geratu egin zan: hori aukera ezin hobea izan zan zenbaitentzat deseroso dan tradizino bat isilarazteko.

Zezenak Dira pertsonaren eta animalaren arteko trebetasun eta errespetuzko topaketa bat da, herri osoak zaindu, arautu eta maite dauana. Durangoko tradizino bat da, nik defendatzen dodana eta San Fausto jaietako bihotzean jarraituko dauana.

anboto

ARGITARATZAILEA

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902



Zuzendaria

Jone Guenetxea Arrinda.

Erredakzio burua

Ekaitz Herrera Azkarraga.

Administrazioa

Itziar Belar Zubizarreta.

Publizitatea

Goretti Alonso Armendia.

Erredakzioa

Aitziber Basauri Gandiaga,
Joseba Derteano Bilbao,
Maialen Zuazubiskar
Gallastegi, Aritz Maldonado
Zabala.

Marketina

Defie Izaga Yeregui.

Maketazioa

Eider Alberdi Bengoa.

Zuzentzailea

Mikel Azkarraga Etxegibel.

Lege gordailua: BI-2268/01

ISSN: 1578-7028

Tirada: 12.000 ale



LAGUNTZAILEAK



ABADIÑO



ATXONDO



BERRIZ



DURANGO



ELORRIO



GARAI



IURRETA



IZURTZA



MALLABIA



MAÑARIA



OTXANDIO



ZALDIBAR



ZORNOTZA

Aldizkari honek Bizkaiko
Foru Aldundiaren laguntza jaso du




Hezkuntza, Hizkuntza Politika
eta Kultura Sailak diruz lagundua






LABIRINTOA



LERROAK MARRAZTU



DOMINOA



$$\square + \square = \square$$



$$\square + \square = \square$$



$$\square + \square = \square$$



$$\square + \square = \square$$

MARGOTU



ZAZPI DIFERENTZIAK



MUSIKA

"Fanfarrea kamaleonikoa gara; leku guztietara moldatzen gara"

JOSEBA APARICIO IRASTORZA SUGARRIKO KIDEA

Sugarriko kideek dakiten moduan ospatuko dute fanfarrearen 50. urteurrena: kaleak musikaz betez. Horretarako, egun osoko egitaraua prestatu dute



Joseba Aparicio.

Aritz Maldonado DURANGO

Sugarri fanfarreako kideek "gertukoenekin eta kalean" ospatuko dute taldearen 50. urteurrena. Durangogaz eta durangarrekin lotura estutu dute urteetan, makina bat bider girotu dituztelako bertako ta-

berna, izkina eta txokoak. Apariciok urteak daramatza Sugarri gaz kaleak girotzen. Oriotarra sortzez, Zornotzan bizi da gaur egun. Gaur egun Sugarri osatzen duten hamalau kideetako bat da, eta musikarietarikoa asko durangarrak izan ez

arren, urteekin hartu-eman estua garatu dute herriagaz; orain bost hamarkada taldea sortu zutenetako kideak ere omendu gura dituzte zapatuan. **Sugarri errotuta dago Durangon.** 50 urte ez dira egunero egiten, eta, gainera, unerik onenean

harrapatu gaitu. Eta bai, azken urteetan Durangoko herriak sekulako babesa erakutsi digu; gazteak-eta, gurekin egoten dira abesten eta dantzatzen irteten garen bakoitzean, eta hori oso pozgarria da. Udalak ere bere esker ona adierazi digu behin baino gehiagotan, eta auzoetako festetan eta herriko jaietan ere jo ohi dugu.

Durangotik kanpora ere aritu izan zarete.

Egia esanda, gauza asko egin dugu Durangotik kanpora ere, oso txaranga internazionala gara. Hainbat sari jaso dugu eta asko bidaiatzen dugu Euskal Herrian zehar, eta baita kanpora ere. Eta zer gutxiago Durangori me-rezi duen ekarpena egitea baino? Bertan egin gura genuen ospakizuna, eskertza gisa. Gainera, oraindik ere Durangon entseatzeko dugu, bertan lokala utzi digute eta. Beraz, bai udalari baita kuadrillei ere, nolabait euren babesa eskertzeko modu bat dira zapatuan egingo dugun harrera ekitaldia eta gerokoak ere. Eskaini digutena itzuli gura diegu, beti gure ondoan egon direlako. Aldi berean, zerbait xumea ere egin gura genuen, eta horregatik erabaki dugu bazkaria ingurukoekin egitea, adibidez. Gero bai, kalez kale ibiliko gara gure musikarekin, herriarrek beste behin ere ikus dezaten zer egiten dugun, zelako jaia sortzen dugun, azken finean. Azken urteetan, esan bezala, Durangoko festa guztietan egon gara, herrikoetan eta auzoetakoetan ere bai, eta oso pozik gaude horrekin, eta orokorrean durangarrekin.

Lehiaketak eta sariak irabazitakoak zarete. Non zabilzate gusturago, horrelakoetan ala kalerik kale?

Kalea da gure mundua. Azken batean, lehiaketetara aurkeztu garen askotan gonbidatu gaituztelako izan da. Burgosen (Espainia), adibidez, lehiaketa garrantzitsu batean parte hartu izan dugu, baita Soraluzekoan ere (Gipuzkoa). Frantzia oso errotuta dago kaleko musika txapelketak egitea eta hara ere gonbidatu izan gaituzte. Gehien bat, eguna pasatzera joaten gara horrelakoetara, baina egiten dugun musika eta musika hori egiten dugun modua ikus dezatela ere bilatzen dugu. Hainbat sari ekarri dugu etxera, baina, berez, ondo pasatzeko asmoarekin joaten gara. Pozik gaude sariak jasota, garrantzitsua da, eta lana ondo egiten ari zaren

seinale ere bada. Baina guri gustatzen zaiguna kalez kale ibiltzea da. Biharko festan ere horixe egingo dugu; goizean etorriko gara, udalari harrera egiteko, eskerrak emateko, protokoloa mantentzeko, nolabait, baina gero kalez kale ibiliko gara, festa giroan, beti bezala. **Kide asko pasatuko zen Sugarritik urte hauetan guztietan**

Bai, asko! Urtez urte lan garrantzitsua egin da, eta, kostata bada ere, aurrera egiten dugu. Bakoitzak bere bizitza dauka, bere lana, eta ez da erraza esfortzu maila horri eustea, eta, denborarekin, batzuek utzi egin behar izan dute. Jende mordo pasatu da 50 urte hauetan. Zerrenda bat egin dugu denak gogoratu eta gonbidatzeko. Argazkiak begiratzen egon gara, inor ez ahazteko; zoritxarrez, asko falta dira. Sortzaileetako batzuk ere gonbidatu ditugu, baina ez ditugu bertan izango, oso nagusiak direlako. Bisita egingo diegu, dena dela. Bazkaltzeko, ehun bat lagun batu-ko gara, kideak, kide ohiak eta familietako jendea ere bai.

Askok aldatu duzue erreperitorioa azken 50 urteetan?

Musikak jaiak animatzen jarraitzen du. Erreperitorioak behar-bada eguneratu egin dira, urte-tik urtera beritasunak sartzen, baina gu nahiko tradizional mantentzen gara. Kanpora joaten garenean konturatzen gara beste batzuek eboluzionatu egiten dutela, modernitatera, baina guk euskal puntu horri eusten diogu, euskal txaranga puntu horri. Dena dela, fanfarrea kamaleonikoa garelako esango nuke, leku guztietara moldatzen gara eta; ikus gaitzakezu Donostiako danborradan, Aste Santuko prozesioetan, Iruñeko San Fermi-netan zein Gasteizen blusekin.

"50 urte ez dira egunero betetzen, eta, gainera, unerik onenean harrapatu gaitu"

"Durangok sekulako babesa erakutsi digu azken urteetan, baita gazteek ere"



Astelehenean egin zuten aurkezpena.

ARTEA

Pilar Zubiaurre hurbilagotik ezagutzeko aukera, Museoan

Aritz Maldonado DURANGO
Durangoko Arte eta Historia museok Pilar Zubiaurreren *Landabarrenako damia* erakusketan hartuko du azaroaren 29ra bitartean. Garazi Arrizabalaga museoko zuzendariaren berbetan, "luzaroan" egon dira erakusketa hau prestatzen: "Zubiaurre anaiak bloke bat legez ikusi izan dira beti, eta ideia hori apurtu gura genuen. Orain hiru urte Ramonen erakusketa egin genuen, eta orain beste pauso bat eman gura izan dugu; Zubiaurretarrak ez ziren Ramon eta Valentin bakarrik, Pilar ere bazegoen, eta bere eragina eta garrantzia azaldu gura ditugu". Aurkezpenean, Pilar Gutierrez Zubiaurrek ere parte

hartu zuen, Pilar Zubiaurreren ilobak: "Emakume legez, idazle legez zein lagun legez arrastoa utzi zuela uste dut, eta familiaren ondarearen arduradun legez ere bai. Umea nintzela hil zen bera, baina urteekin gehiago ezagutzen joan naiz, etxean genituen argazki, gutun eta dokumentuei eskerrak". Erakusketan lan horiek daude.
Ainhua Olaso eta Markel Onaindia filmatzen dabilzan *Landabarrenako damia* dokumentaleko elementuak ere egongo dira ikusgai; besteak beste, Iruri Altzerrekaren bertso bat, Maite Arroitauregiren abesti bat eta Arrate Rodriguezen ilustrazio bat.

IKASTAROK

25. urteurrenean, osasun fisiko eta mentala zaintzeko ariketak ardatz

Aritz Maldonado IURRETA
Iurretako Ibarretxe kultur etxeak 26/27 ikasturterako egitaraua aurkeztu du oraintsu. Programa honek 25 urteko ibilbidea bete du, eta, urteurrena ospatzeko, 800 plaza eskainiko dituzte, askotariko diziplinetan banatuta. Berrikuntzen artean, Zorione Fundazuri zinegotziak osasun fisikoa eta mentala bultzatzekoak nabarmendu zituen. "Dantza Fitness, gimnasia intentsiboa, pilates eta sevilla dantzak eskainiko dituzte, besteak beste. Bestalde, Agora plaza eta Jabekuntza eskolaren bitartez integratzeko eta ahalduntzeko ekimen berriak eta pertsona migratzaileentzako ekintzak ere azpimarratu daitezke", azal-

du zuen Fundazurik aurkezpenean.
Bestalde, Oskar Koka alkateak urteotako ibilbidean Ibarretxe kultur etxeak eskaini duen ekarpena nabarmendu zuen: "25 urte daramatzagu Ibarretxe kultur etxea Iurretan kultura, arteak eta berdintasuna elkartzeko, integratzeko eta zabaltzeko gune bihurtzen. Gure baliorik handiena auzokideen parte hartzea da, hori barik proiektu honek ez lukeelako zentzurik izango". Iurretan erroldatutakoek irailaren 18ra arte eman ahal izango dute izena; gainerakoek irailaren 15etik 18ra bitartean. Eskaera goizez egin daiteke HAZen, edo arratsaldean kultur etxean; telematikoki ere egin daiteke.



Udal ordezkariak. UDALA

ZINEMA

DURANGO

ZUGAZA ZINEMA

El ser querido
Barikua 11: 17:45, 20:30.
Zapatua 12: 18:45, 21:30.
Domeka 13: 19:30.
Astelehena 14: 17:45, 20:15.
Martitzena 15: 17:45, 20:15.
Eguaztena 16: 19:00.
El nido
Barikua 11: 18:00, 20:30.
Zapatua 12: 19:15, 21:30.
Domeka 13: 19:30.
Astelehena 14: 18:00, 20:15.
Martitzena 15: 18:00, 20:15.
Eguaztena 16: 19:00.
Prácticamente magia 2
Barikua 11: 17:45, 20:30.
Zapatua 12: 16:45, 18:45, 21:30.
Domeka 13: 16:45, 19:30.
Astelehena 14: 17:45, 20:15.
Martitzena 15: 17:45, 20:15.
Eguaztena 16: 19:00.
Tadeo Jones y la lámpara maravillosa
Zapatua 12: 16:45.
Domeka 13: 17:00.
Marsupilami (euskaraz)
Zapatua 12: 16:45.
Domeka 13: 17:00.

ZORNOTZA

ZORNOTZA ARETOA

El ser querido
Barikua 11: 20:00.
Zapatua 12: 20:00.
Domeka 13: 20:00.
Astelehena 14: 20:15.
La patrulla canina. La dino película
Zapatua 12: 17:00.
Domeka 13: 17:00.

GAI LIBREAN



ESTI ALBIZU GOIKOETXEA
BIZENTA MOGEL

Babeslekua

Uda honetako beroak gogorarazi digu badirela herri batean ia oharkabean funtzionatzen duten lekuak, benetan behar ditugun arte baloratzen ez ditugunak. Bizenta Mogel biblioteka horietako bat izan da. Babesleku klimatiko gisa zabalik egon da, bero itogarritik ihes egiteko tokia eskainiz. Baina, egia esan, aspalditik da babeslekua. Ez bakarrik tenperaturarena.
Bibliotekak badute merkatuaren logikatik ihes egiten duen zerbitzu. Ez dizute ezer erosteko eskatzen han egoteko. Ez dute presarik sortzen. Ez zaituzte bezero bihurtzen. Atea zeharkatu, eseri eta egon egin zaitezke. Gero eta espazio publiko gutxiagok eskaintzen duten askatasuna da hori.
Horregatik, bibliotekak ez dira liburuak mailegatzeko zerbitzu hutsak. Herri baten zaintza-sarearen parte dira. Ezagutza partekatzen dute, baina baita denbora,

lasaitasuna eta elkarbizitza ere. Bertan elkartzen dira ikastera doan gaztea, ipuinak entzutera datorren haurra, irakurle-klubeko kideak eta egunkaria lasai irakurri nahi duen herritarra. Komunitatea ez da aldarrikatzen; horrela eraikitzen da.
Bizenta Mogel bibliotekak urteak daramatza bide horretan. Irakurketa sustatzeko ekimenek, kultur jarduerak eta hainbat belaunalditako pertsonak elkartzeko ahaleginek erakusten dute biblioteka ez dela solik bilduma eder bat duen eraikina, harremanak ehuntzeko espazioa baizik.
Klima-aldaketak gero eta maizago ekarriko dizkigu bero-boladak, eta babesleku klimatiko gehiago behar ditugu. Baina ez dezagun ahaztu beroaren aurkako babes horrek beste zerbitzu ere irudikatzen duela. Herri baten indarra ez dago soilik eraikitzen dituen azpiegituretan; elkar zaintzeko gai diren espazio publikoetan ere badago. Eta bibliotekak, isilean, horixe egiten du egunero.

"Horregatik, bibliotekak ez dira liburuak mailegatzeko zerbitzu hutsak. Herri baten zaintza-sarearen parte dira"

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENENKO EGUERDIA BAINO LEHENAGO.
946 232 523 / agenda@anboto.org

BARIKUA 11

- **ABADIÑO Aitte Kurutzeko Jaiak** Pijama eta kamisoi eguna. Ferialekutik Andra Marira txopo bila, 17:45ean. Txopoa altxatzea, 19:00etan. Parrillada, 20:00etan. Errota taldea, 20:00etan. Umeen patata dantza (0-12 urte), 21:30ean. DJ Bull, 23:30ean. Nagusien patata dantza (13 + urte), gauerdian. Zelaietan.
- **DURANGO 'Landabarrenako Lamia. Garai 1884- Mexiko Hiria 1970'** Pilar Zubiaurren lanak. Arte eta Historia Museoan, abendura arte.
- **DURANGO Argazki erakusketa kolektiboa** Durangaldeko Artista Elkarateak Carmen Merayo,

Rai Bikandi, Javier López Fabián, Jon Gorroño, Alberto Cimarro, Ángela L.O., Javier Lozano eta Miguel Hernandezen argazkiekin osatu du erakusketa. Ezkurdi aretoan, irailaren 13ra bitartean.

- **ZORNOTZA 'Margotzea da nire ametsa'** Mari Tere Ugarrizaren lanen erakusketa. Zelaieta zentroan, irailaren 13ra arte.

ZAPATUA 12

- **ABADIÑO Aitte Kurutzeko Jaiak** Puzgarriak eta jolasak (11:30-14:00 / 16:30-19:00). Txokolatea, 18:00etan. Txapelketarako tortillen aurkezpena, 20:30ean. Ondoren, monologoa: Manex Astigarra eta konpainia. Zelaietan.



ZALDIBAR Kontzertua Maren artista bizkaitarrak kontzertua emango du Zaldibarren. Pop-rock indie doinuak lantzen dituen musikariak disko bi kaleratu ditu. Udaletxeko plazan, irailaren 12an, 21:30ean.

- **DURANGO Naiz Market azoka** Zumalakarregi kalean (10:30-20:30).
- **DURANGO Tronperri dantza taldearen 65. urteurrena** Dantza poteoa Kittu

taldeagaz, 12:00etan. Bazkaria, 14:30ean. Ondoren, bingo musikatua. Errota taldea, 18:00etan. Landako Gunean.

- **ZORNOTZA Aitor Huergo** Kontzertua Eleizatan

egitarauaren barruan. Dudeako San Migel elizan, 20:00etan.

DOMEKA 13

- **ABADIÑO Azoka** Hileko 2. domekako ekoizle eta artisauen azoka. Kantu Lagun saioa antolatut dute goiza girotzeko. Txanporta plazan (10:30-14:00).
- **ABADIÑO Aitte Kurutzeko Jaiak** Mozorro Eguna. Maleta sikua, 14:30ean. Eingo erromeria taldea, 16:30ean. Desmuntai, 20:00etan. Zelaietan.
- **ZORNOTZA Musikeneko ikasleak** Kontzertua Eleizatan egitarauaren barruan. Garaitondoko San Isidro elizan, 19:00etan.
- **ZORNOTZA 'Ekialdea'** Erakusketa, Pintzelak elkarateak antolatuta. Zelaieta zentroan, irailaren 26ra bitartean.

ASTELEHENA 14

- **ABADIÑO Aitte Kurutzeko Eguna** Meza, 12:00etan. Ondoren, pintxoak.

EGUENA 17

- **BERRIZ 'Matraka Culinary Center'** Trakamatraka konpainiaren ikuskizuna. Olakueta plazan, 17:30ean. (Euria eginez gero, eskolako patioan).
- **ZORNOTZA Ogenbarrena auzoko jaiak** Trikipotea, arratsaldean.

BARIKUA 18

- **ZORNOTZA Ogenbarrena auzoko jaiak** Txupinazoa, 18:00etan. Zumb@ + Dj Zirkir, 18:30ean. Tortilla txapelketarako izen ematea, 19:30ean (aurkezpena, 20:30ean). DJ Zirkir, 21:00etan.

Izurtzako jaiak

IRAILAK 11
GERTUFEST SANTO TOMAS PARKEAN

- **17:30** Taberna, artisau azoka, EKO-karusela, Arku-tiroa.
- **18:00-20:00** Cia Demián (mimoa) eta Harri Orri Ar txapelketa.
- **19:00** Supitiki Show antzerkia.
- **20:00** Sua Show (Anjia & Cia).
- **21:00** LDF Mambo Express (Kunbia).

IRAILAK 12
SANTO TOMAS EGUNA

- **10:00** Kalejira JAIZALEgaz.

GERTUFEST SANTO TOMAS PARKEAN

- **11:00** Taberna, artisau azoka, EKO-karusela,

yoga tailer irekia (Patagonia Hatha Yoga), Cia Demián (mimoa), zirkua.

- **12:00** Kriskitin dantza taldea.
- **12:30** Salsa tailer irekia eta DJa.
- **19:00** Tortilla txapelketa frontoian.
- **20:30** Tortilla aurkeztea.
- **21:30** Herri afaria.
- **22:30** Xaibor.

IRAILAK 13

- **11:30** Arraza libreko ardi-txakurren erakustaldia (frontoi atzeko belardian).
- **13:30** Igel txapelketa, plazan.
- **14:30** Jubilatuen bazkaria.
- **17:30** Mus txapelketa Argintxun* 'Mus: Gehienez 16 bikote. 3 jokotara.
- **17:30** Partxis txapelketa plazan*. "Partxis: Gehienez 16 bikote. 2 fitxara.

Elorrioko jaiak

IRAILAK 11

- **09:15** Ibilbide zirkularra Elorrio. Plaza. (Plaza-San Roke-San Jose- autokarabana gunea-Arraiarte-San Agustin-Kurutzondo-Plaza-Kiroldegia-Txanberi-Angio-Gazeta-Gerbilla-Aldape-San Juan-Zenita-Argiñeta-Lekeriketa-Kurutzondo-Plaza-Aldatsekua). Antolatzailea: Durangaldeko Bizidun Nagusien Elkartea.
- **11:30** Hildako jubilatuen omenezko meza. Sortzez Garbiaren Basilika.
- **13:00** Kopaua Elorrioko jubilatuentzat eta ibiltarientzat. Aldatsekua.
- **18:00** Jubilatuentzako dantza. Aldatsekua.
- **18:00** Elorrioko buruhandiak. Plaza
- **19:00** 'Intrigulis' Adrián Conde (zirkua). Urarka.

- **20:00** Bilboko Ganbera Abesbatza eta Orkestra. Arriola. (Opera-Zarzuela).
- **20:30** DJ Txululu (arratsaldeko parranda: 70eko, 80ko, 90eko hamarkadak). Urarka.
- **22:00** Suzko zezena. Plaza.
- **22:30** Kontzertuak: Los Zopilotes Txirriaos. Ganondo.

IRAILAK 12

- **8:00** Sukalki eguna. Aldatsekua. Zatoz mozorroa jantzita! Antolatzailea: Iturizoro elkarateak.
- **11:30-14:00 / 16:30-19:00** Haur parkeak. *Ikusi informazioan eta oharretan.
- **12:00-14:00 / 17:00-20:00** Txu-txu trenak. *Ikusi informazioan eta oharretan.
- **13:00** Bits jaia. Plazako frontoia.
- **16:00** Kaletrik (plaza dantza). Aldatsekua.

- **18:00** Txokolatada. Plaza. Laguntzailea: La Esperanza nagusien elkartea.
- **18:00** Karrozen jaitsiera. Aldatsekua. QRa izena emateko. Ibilbidea: Aldatsekua-Berrio Otxoa- Plaza-San Pio-taxi geltokia-ikastola-Errebonbillo-Errekakale-Plaza.
- **18:00** Disko Sound 4. Plaza.
- **22:00** Suzko zezena. Plaza.
- **22:30** DJ Kene.mp3 & DJ Sierritx & DJ Delko. Plaza.
- **23:00** Sukar Taldea (erromeria). Urarka.
- **00:00** DJ-ak. Txosnagunea.

IRAILAK 13

- **11:30-14:00 / 16:30-19:00** Haur parkeak.
- **12:00** Elorrioko kolore eta zaporeak (kulturarteko jaia). Kanpokale. Antolatzailea: Kainabera GKE

- **13:00** Herri kirola. Plaza. Jon Gisasola eta Goizeder Abendibar harrijasotze erakustaldian; Kepa Solozabal eta Ioritz Gisasola bikotea, Ainize Perez eta Xabier Zaldua bikotearen aurka aizkora; Izaro Solozabal iparraldeko jokoen erakustaldia (ingude jasotzea eta txinga eramatea); bikote mistoak trontza desafioan.
- **18:00** Bertso saioa: Txaber Altube, Sustrai Colina, Oihana Bartra eta Miren Artetxe. Aldatsekua. Gai-jartzailea: Maite Berriozabal.
- **19:30** 'Ioi' HAATIK Dantza konpainia (dantza ikuskizuna). Plaza.

FUTBOLA

"Eskuzabalik hartu naute eta oso pozik nago"

MAITENA PORSET ARRUTIA ELORRIO FUTBOL TALDEKO JOKALARIA

Bizkerren hainbat urte eman eta gero, Elorrion batu da, taldeak iaz lorturiko zazpigarren postua berdindu edo hobetzeko helburuagaz

Joseba Derteano ELORRIO

Maitena Porset Arrutia (Algorta, 2002) Elorrio futbol taldearen denboraldi honetako fitxaketa berri bat da. Aurretik hainbat urtez Bizkerren jokatu eta gero, Elorrion aurkitu du bilatzen zuena. Getxotik Elorriorako joan-etorriak ez zaizkiola astun egiten dio, eta oso pozik dago talde berrian aurkitu duen giroagaz.

Zelan sortu zaizu Elorrio futbol taldera batzeko aukera?

Dudan nengoen Bigarren RFEF Mailan jarraitu ala ez. Behin unibertsitatea amaituta eta mundu laboralera begira nabilela, kategoria horren exigentzia mailari eustea gatzagoa egingo zitzaidala pentsatzen nuen. Izan ere, Galiziatik Madrilerainoko edozein lekutan izan daitezke partiduak, urruti. Zalantza une hori bizi nuela, Elorrioko bigarren entrenatzaileak taldera batzea proposatu zidan. Aurretik ezagutzen nuen, hainbat denboralditan entrenatu ninduelako Bizkerren zebilean. Elorrion oso giro ona zegoela esan zidan eta azkenean taldera batzea erabaki nuen.

Zelan hartu zaituzte taldekide berriak?

Itzel, espero nuen baino hobeto. Besozabalik hartu naute eta oso integratuta sentitzen naiz. Ez futbol ikuspegitik bakarrik, baita sozialki ere. Planak egin ditugu, afariren bat, lagunarteko giroan egon gara... Horrelako planekin taldea indartu egiten

da. Familia sentimendu hori igartzen dut. Beste filosofia bategaz hartzen dute futbola eta orain arteko dena positiboa da. Oso pozik nago.

Beraz, merezi dizu astero hainbat bider Getxotik Elorrion etortzea.

Bai. Hango inguruko hainbat jokalarik gabiltza Elorrion eta kotxea partekatzen dugu. Bat kenduta gainerakoak aurretik ezagutzen nituen, eta, egia esanda, kotxe bitan oso ondo moldatzen gara. Bidean hainbat galdi egiten dugu jokalariek batzeko eta 35-40 minutu behar ditugu Elorrion heldzeko.

Azken asteetan zenbait partidu jokatu duzue prestakuntzara begira. Zelan joan da denboraldiaurrea?

Lehenengo, Eibarren kontra jokatu genuen. Ondoren, hiruko txapelketa batean parte hartu genuen Hernanigaz eta Arratia-gaz. Partidu horiek erritmoa hartzeko, entrenatzailearen ikuspegia barneratzeko eta zelai barruan elkar ezagutzeko balio izan ziguten. Ondo etorri zitzaizkigun prestakuntzan pauso berriak ematen joateko. Lan hori hurrengo partiduetan igarri zen. Esaterako, Bilbao Artizarrak eta Lakua taldeen kontrako partiduak irabazi egin genituen. Liga hasierara sasoi onean helduko garela uste dut.

Elorriok zazpigarren tokian amaitu zuen iazko liga. Aurten zein da helburua?

Gutxienez iazkoa berdintzea edo hobetzea. Hainbat jokalarik berri batu da taldera, iaz baino maila hobea ei dugu eta iazkoa hobetzeko lan egingo dugu. Hori bai, guk asterik aste lan egingo dugu, partidurik partidu joango gara, burua gerora begira galdu barik, nahiko liga exigentea da eta. Talde gogorrak daude.

Aurrelaria zara. Golez gainera, zer eman gura diozu taldeari?

Denerik eman gura nuke. Aurreko denboraldietan punta erdian eta hegalean ere jokatu dut. Beraz, gauza gehiago ere eman gura nuke. Hori bai, taldekide guztiek maila handia dute eta ez da erraza izango partidu askotan jokatzeko. Esperientzia handia duten jokala-



Bizkerren zazpi denboraldi egin eta gero, Elorrion batu da.



Elorrio futbol taldearen aurtengo talde argazkia.

riengandik ikasten ahaleginduko naiz eta aukera dudanetan neure onena ematen ahaleginduko naiz.

Zelan jokatu du taldeak aurten?

Baloia gure hanketan izan gura dugu, baina ez alde batetik bestera mugitzeko bakarrik, erasora begira jokatzeko baino. Aldi berean, erasoan abaguneak ondo

aukeratzea ere garrantzitsua izango da, presaka ibili barik eta pazientziagaz. Horrez gainera, presioa ondo egin eta aurkariari min egiten dion tokian berreskuratu gura dugu baloia. **Ligako estreinaldia domekan duzue, 17:00etan, Elorrion. Alaves B taldea izango duzue aurkari. Zer itxaropen duzue?**

Filialak talde gogorrak izaten dira beti. Jokalarik gazteak izaten dituzte, esperientzia handirik bakoak, baina talde horretan badaude, jokalarik onak direlako da; beraz ez da partidu erraza izango. Denboraldiaurrean landu eta ikasitakoagaz, konfiantzaz beterik eta irabazteko gogotsu helduko gara.

"Familia sentimendu hori nabari dut taldean. Beste filosofia bategaz hartzen dute futbola"

"Punta erdian eta hegalean ere jokatu dut. Golaz gainera, gauza gehiago eman gura nuke"



Irailaren 17an jokatu da lehen jardunaldia, Olazar pilotalekuan.

PILOTA

Eskualdeko lau pilotari borrokan hastear den Olazar txapelketan

Final-laurdenetatik aurrerako jardunaldiak zuzenean emango dituzte eta 'www.anboto.org' atarian ikusi ahal izango dira

J.D. ZALDIBAR

Etorkizuneko Olazar Pilota Txapelketaren 39. aldia datorren egunean hasiko da Zaldibarren. Egun horretatik aurrera, eguenero egongo dira jardunaldiak, 21:00etan. Urtero legez, binaka eta lau eta erdiaren barruan jokatu da txapelketa. Txapelkunak abenduaren 31n erabakiko dira.

Binakako txapelketan 19 bikote lehiatuko dira aurten, normalean baino hiru gehiago. Bertan, eskualdeko hiru pilotari lehiatuko dira: Aimar Iturbe zaldi-

bartarrak Ibarluzeagaz batera jokatu du, Aingeru Bernaola mañariarrak Egigurenegaz, eta Faben Ituarte atxondarrak Arroitagaz. Arribillaga-Santesteban, Beitia-Elorz eta Fernandez-Apeztegia bikoteak dira faborito txapelketa irabazteko.

Lau eta erdiaren barruan 15 pilotari arituko dira eta eurretari bat eskualdekoa da: Koldo Bikandi iurretarra. Maila hone-tan, Cestau iazko txapeldunordea, Ramirez, Egurrola, Nazabal eta Ibarra nabarmendu daitezke faboritoen artean.

Irailaren 17an, lehenengo jardunaldian, Bikandi izango da protagonistetariko bat; Rekalderen aurka jokatu du. Binaka, Aranbarri-Garmendia eta Ibarluzea-Iturbe arituko dira aurrez aurre.

Emakumeen txapelketa ere jokatu da, lau pilotarigaz. Finalerdietatik aurrera lehiatuko dira.

Zuzeneko emankizunak

Zaldua Pilota Taldeak aurten ere zuzeneko emankizunak eskainiko ditu final-laurdenetatik aurrera. Ahal duenero, Haritz Gallas-tegi izango da esataria, eta Enrique Agirrebeitia komentaria. Azaroaren hasierarako dute aurreikusita lehenengo partidua. Guztira, zortzi emankizun izango dira. Emankizunak www.anboto.org webgunean ere jarraitu ahal izango dira, eguenero.



Iaz Atxondon jokaturako finaleko irudi bat. BIZKAIKO PILOTA FEDERAZIOA

PILOTA

Lehenengoz emakumeak ere lehian izango dira Cafés Baqué txapelketan

J.D. DURANGALDEA

Cafés Baqué txapelketak buruz buruko nobedade nagusi bategaz ekin dio 39. aldiari: emakumeak ere badabiltza lehian. Hamasei pilotarik hasi dute txapelketa, euren artean Durangaldeko batek: Durangoko Pelotazale Klubean dabilen June Agirrebeitiak.

Mutiletan kadete eta gazte mailan lehiatuko dira, 20 pilotari kategoria bakoitzean. Eurretari 24 bizkaitarrak dira. Gainerakoak Gipuzkoako, Arabako, Nafarroako eta Errioxako txapeldunak dira. Hemen ere badaude eskualdeko ordezkariak: Pablo Agirrebeitia (Durango Pelotazale) eta Jon Areitio (Zornotzako Lagun Onak) kadetee-

tan, eta Enaitz Uribe (Durango Pelotazale) eta Izkander Torralba (Lagun Onak) gazteen kategorian.

Jardunaldi bi astean

Txapelketa Mañariko, Zelaie-tako, Traña-Matienako, Iurretako eta Durangoko frontoietan jokatu da. Aurten ez da Atxondon jokatu, frontoiko mantentze-lanak direla eta.

Partiduak eguenero eta barikuetan jokatu dira, 18:30ean. Atzo jokatu zuten lehenengoa, Iurretako frontoian. Gaurko jardunaldia Durangon da, lau partidugaz: Perez-Agirrebeitia, Goikoetxea-Ardeo, Sololuze-Txabarri eta Bediaga-Oruesagasti.

JOKALDIA



GOTZON GOMEZ BARRENETXEA
ERRUGBIA

Epailearen garrantzia

Buruan askotan izan dut galdera bat, noiz eta nola agertu ziren epaileak kirol munduan. Errugbiaren hastapenetan epaileak ez ziren existitzen eta urte asko igaro ziren epailearen irudia jokoan agertu zenetik. Hasierako urte horietan, arauak bi kapitainek adosten zituzten, eta beraiek zuzentzen zuten partida.

1871n, Rugby Football Union sortu zen, Ingalaterrako eta munduko errugbi klubuen lehen erakundea, jokoaren arauak eta legeak bateratzeko asmoarekin. Baina 1892an gertatu zen partida ofizialetan epaile nagusia zein bi laguntzaileen edo toucheko epaileen figura ezartzeko beharra, partida batean bi kapitainen arteko eztabaida sutua sortu baitzen entsegu bat gauzatu zuten ala ez erabakitzeko.

Azken urteetan teknologia erabiltzen hasiak dira ia kirol guztietan. Errugbia aitzindaria izan zen beste

"Hasierako urteetan arauak bi kapitainek adosten zituzten, eta beraiek zuzentzen zuten partida"

"2015eko Ingalaterrako Munduko Txapelketak beste urrats bat ekarri zuen. Han agertu zen Belatz Begia"

kirol batzuekin alderatuz; telebistaren eta bideo-arbitroaren (TMO) erabilera Pretorian (Hegoafrika) hasi zen 1995ean, Blue Bullsek jokaturako Carlton Leagueko finalean. Tappe Henning izan zen epailea. 1996ko hasieran, Toyota Kluben arteko Txapelketan erabili zen, Durbanen, Johan Gouwssen zuzendaritzapean.

2015eko Ingalaterrako Munduko Txapelketak beste urrats bat ekarri zuen. Han agertu zen Belatz Begia, errugbiari aplikatua, TMOaren euskarri gehigarri gisa balio izan zuen.

Argi dago teknologia lagungarria izan daitekeela, baina epailea da joko gidatu behar duena. Argi daukat epaile ona izan ahal izateko, prestakuntza ezinbestekoa den moduan, norberaren bokazioa ere funtsezkoa dela, ahaztu barik jokalarien eta ikusleen errespetua, eta esparru honetan zeregin handia dago.



PARTE HARTU ORAIN!

Zenbaterazagutzen duzu Durango?

Irabazi afari bat
Gaztelua jatetxean 🍷



SARTU, JOKATU ETA IRABAZI OTORDU BAT!

GUARDIAKO BOTIKAK	
IRAILAK 11, BARIKUA	
09:00-09:00	
Unamunzaga, Muruetatorre 2C - Durango	
Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza	
IRAILAK 12, ZAPATUA	
09:00-09:00	
Navarro, Artekalea 6 - Durango	
Goiria, Sabino Arana 6 - Zornotza	
IRAILAK 13, DOMEKA	
09:00-09:00	
Sarria, Sasikoa 17- Durango	
Goiria, Sabino Arana 6 - Zornotza	
IRAILAK 14, ASTELEHENA	
09:00-09:00	
Gaztelumendi, J.A. Abasolo 2 - Durango	
Goiria, Sabino Arana 6 - Zornotza	
IRAILAK 15, MARTITZENA	
09:00-09:00	
Irigoien, Bixente Kapanaga 3 - Iurreta	
Goiria, Sabino Arana 6 - Zornotza	
IRAILAK 16, EGUAZTENA	
09:00-09:00	
Sarria, Sasikoa 17- Durango	
Goiria, Sabino Arana 6 - Zornotza	
IRAILAK 17, EGUENA	
09:00-09:00	
Unamunzaga, Muruetatorre 2C - Durango	
Goiria, Sabino Arana 6 - Zornotza	

ZORION AGURRAK



Oier
Zorionak, Oier! Ondo pasatu zure urtebetetzean. Mosu handi bat! Askok maite zaitugu!



Natali Cebrian
Abuztuaren 30ean Natali Cebrianek urteak egin zituen. Zorionak etxeko danon partez!



Asier Etxebarria
Asier Etxebarriak 46 urte egin zituen abuztuaren 31n. Zoriontsu izan zaitezela!



Karmelo Iriondo
Karmelo Iriondok urtegune ospatu dau irailaren 6an. Zorionak, aittitte! Besarkada bat!

Zorion-agurra jartzeko, hiru bide:

- Anboto.org/zorionagurrak helbidean.
- Bidali mezua: agenda@anboto.org helbidera, eta idatzi izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta testua.
- Anbotoren egoitzan edo: 946 232 523.

GOZATU GOZOTEGIA

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663 · gozatudurango@gmail.com
📞 661 401 400
📍 Gozatu Gozotegia 📱 gozatugozotegia



Hamabostean behin, jasotako zorion-agurren artean gozatu gozotegiko tarta bat zotz egingo dugu. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion-agurrekin batera.

OROIGARRIA



Bittor



A zelako kolpea
esan ta sinistu ezinekoa
Gazte joan haiz baina
bizitza luzea bizita hoa
Lagunetan lagun,
itzi dok bete ezineko zuloa
Hi barik aurrera egin beharra
gelditzen zaiguk gizona.

Bittor-i maitasunez Mendiola ta Axpeko kuadrilako lagunak

OROIGARRIA



Izaskun Aliende Ugarriza



Urratsak amaitu dira lurrean, baina zure doinuak gure bihotzetan dantzatzen jarraituko du beti



INSTITUTUA
DURANGO BHI

Durango BHI-ko zure lankideak

Galdakaon hil zen, 2026ko abuztuaren 16an




Smurfit Westrock
Central Forestal

+55 urte Euskadiko pinudiak zaintzen



Smurfit Westrock
Nervión



Etorkizun hobe baterako enbalaje iraunkorrak

INMOBILIARIAK



ETXETXO
INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 - DURANGO
www.inmoetxetxo.com



C.E.E.= F. 355.000 €

ABADIÑO (ZELAIETA) 4 logela, 2 komun, sukaldea 25 m2-ko terrazarekin eta egongela terrazarekin. 40 m2-ko garaje itxia. 80 m2-ko trastelekua. Parking pribatua. Eguzkitsua.



C.E.E= E 244.000 €

ARTEKALE Erdigunean. 80m2. 2 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. Balkoia. Bizitzen sartzeko moduan.



C.E.E=B 519.000€

DURANGO Duplexa. Atikoa. Edigunean. 3 logela, 2 komun eta eskegitokia. Garajea eta trastelekua. Estreinatzeko.



C.E.E=B 376.000€

DURANGO Atikoa. Erdigunean. 3 logela, 2 komun eta eskegitokia. Garajea eta trastelekua.



C.E.E.= F 470.000€

BASERRIA Berriztatua. 436m2. 3 solairu. 4 logela eta 2 komun. 2 balkoi. Ganbara. Txokoa beheko suarekin. Garaje itxia. 4 hektareako lursaila.



AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1.ezk. - 48200 DURANGO

ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO
ZUMALAKARREGI 235 m2. Durango erdigunean. Zoragarria.
MONTEBIDEO Berriztatzeko. 175m2, 6. solairuan. Balkoia. 60 m2, 7. solairuan. Ikuspegi ederrak.
MONTEBIDEO 150 m2. 4 logela. Handia. 2 kotxerentzako garaje itxia.
FRAY JUAN DE ZUMARRAGA 180 m2. 4 logela, 2 komun, sukaldea, jangela eta egongela. 3 balkoi. Berriztatzeko.
FRANTZISKO IBARRA 3 logela, egongela balkoiarekin, komuna eta sukaldea. 100 m2-ko terraza handia.
GOIENKALEA 65 m2. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Balkoia.
GOIENKALEA 2. solairua. Halla, 3 logela, sukaldea, 2 komun eta egongela. Bizitzen sartzeko moduan.
BARRENKALEA Logela bakarreko apartamentua. Sukaldea, egongela logela eta komuna. Trastelekua.

LURSAILAK SALGAI
URRUTXUA 9 hektareako 2 baso salgai. Errepidearen ondoan.

BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI
IURRETA Fauste auzoa. Bifamiliarra. Ikuspegi ederrak. Leku onean kokatua. Prezio ezin hobea.
IURRETA Baserri erdia saltzen da San Markos auzoan. Teilatua berriztatua. Gainontzekoa berriztatzeko.
ABADIÑO Etxezurin kokatua. 300 m2. Berriztatzeko. Lursailarekin. Ganbara.
BERRIZ Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berriztatzeko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.
MAÑARIA 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160m2 solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

BULEGOAK ALOKAIRUAN

ABADIÑO
30 m2-tik gorako bulegoak. 350 -tik hasita. Argia eta wifia barne.
DURANGO
ERMODO KALEAN 100 m2. 2 bulego alokairuan. Garajearekin.

LOKALAK ALOKAIRUAN
DURANGO Lekker taberna alokatzen da. 100 m2. 40 m2-ko jantokia, sukaldea, komunak. Zure negozioarako aproposa.
ALDE ZAHARREAN, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

LOKAL INDUSTRIALA SALGAI
MATIENA 460m2-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.
ELORRIO 600 m2-ko pabilioia salgai. Komunak, aldagelak eta bulegoa. Jantzia. Lanerako prest.

LOKAL INDUSTRIALA ALOKAGAI
BERRIZ
BERRIZ Eitua industrialdea. 600 m2-ko pabilioia. Bulegoa, komuna eta aldagela. Errepide ondoan. Leku onean kokatua.




Inmobiliaria del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 - DURANGO - 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com



C.E.E.=E 164.000 €

ABADIÑO: SAN TROKAZ: 33,65 m2. Egongela-sukaldea-jangela, egongela horma-armairuekin eta komuna dutexarekin. 122,20 m2-ko lursaila. Etxe osoak kanpora ematen du (hego-mendebaldea) Argitsua. Zonalde lasaia. Zonalde berdeak gertu eta aparkatzeko erraztasuna.



C.E.E.: G. 224.000€

MAÑARIA: ANDRA MARI: 67,52 m2. Egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta komuna dutexarekin. 2 balkoi. Egoera onean. Etxe osoak kanpora ematen du. Argitsua. Ikuspegiekin. Zonalde lasaia zonalde berdez inguratuta. Aparkatzeko erraztasuna. 32m2-ko txokoa guztiz jantzia komunarekin. Etxebizitzaren azpian dago, apartamentua bihurtzeko aukerarekin. ITE-a pasatutakoa.



C. E. E.: E. 144.000€.

ELORRIO: ERREKA KALEA: 48m2. Egongela-jangela, logela eta komuna. Egoera onean. Gas naturala eta beirazko kristal bikoitzeko zurezko leihoak. Erdigunean.



C. E. E.: E. 204.000€.

DURANGO: TORRE DE LARIZ: 98 m2. Egongela, sukaldea, 4 logela eta komuna. 2 balkoi. Eraberritze integrala behar du. Norberaren gustura diseinatu eta egokitzeko aukera ematen du. Etxe erdiak kanpora ematen du. Argitsua. Erdigunean. Zonalde berdeak.



Salgai: 16.000 € + BEZ-a

MATIENA: TRAÑAERROTA: Garajeak lehenengo eta bigarren solairuetan. Duela gutxi eraikitako eraikina.



Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 behea - DURANGO
Tel.: 946 816 423 - www.fernandouri.es

DURANGO
ANDRA MARI: 3 logela, sukaldea, jangela, egongela eta 2 komun. 240.000 €/ E.E.Z=E igogailu obra erosleen gain izanez gero, saltzaileen gain izanez gero 270.000 €.
BARRENKALEA: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. 350.000 € / E.E.Z=F
GOIENKALE KALEA: Logela, sukaldea egongelarekin eta komuna. Igogailua. 160.000 € / E.E.Z=F
SAN INAZIO AUZUNEA: 2 logela, sukalde-egongela eta 2 komun. Etxebizitza berria. 280.000 € / E.E.Z=A
ZABALE KALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. 2 balkoi. Igogailua eta 2 kotxerentzako garajea. 375.000 €/ E.E.Z=E

ABADIÑO
DENDARIKOA: Zaharberritzeko dagoen eraikina. Beheko solairua eta 3 pisuko altuera. 215.000 €.

ATXONDO
ARTEKALEA, 13: Konpontzeko baserria lursailarekin. 300.000 €.

BERRIZ
BIDEGAIN KALEA: Duplexa. 3 logela, sukaldea, 2 egongela eta 3 komun. Terraza. Igogailua. 2 garaje eta trastelekua. 450.000 €/ E.E.Z=Bidean
MURGOITIO AUZOA: Berreraikitako baserria lurzoruaqaz. LEHEN 280.000 € / ORAIN 250.000 €.

GARAI
MOMOITIO AUZOA: Etxebizitza eraikitako lursailak. Aukera ezberdinak.

GARAJEAK SALGAI / ALOKATZEKO DURANGO
ANTSO EZTEGIZ: Garajea. 45 € / hilean. Motorrentzat egokia.
KURUTZIAGA: garajea. 18.000 €.
KURUTZIAGA: Garaje itxia 22.000 €.
MADALENOSTE: Garaje itxia eta trastelekua. 42.000 €.

LOKALAK ETA PABILIOIAK SALGAI / ALOKATZEKO DURANGO
ANDRA MARI KALEA: 76 m2-ko lokala. Salgai: 90.000 € / Alokagai: 800 € hilean / E.E.Z=E
ANDRA MARI KALEA: 62 m2-ko lokala. 850 € / hilean / E.E.Z=Bidean.
ARKOTXA KALEA: 122 m2-ko lokala. 900 € / hilean. E.E.Z=Bidean.
BARANDIARAN KALEA: 50 m2-ko lokala. Salgai: 130.000 € / Alokagai: 800 € / hilean. / E.E.Z=Bidean.
BARANDIARAN KALEA: 50 m2-ko lokala. 800 € hilean / E.E.Z=Bidean.
IBAIZABAL AUZUNEA: 60 m2-ko lokala. LEHEN 240.000 € / ORAIN 198.000 € E.E.Z=E
KALEBARRIA: 82 m2-ko. 92.390 € / E.E.Z=E
ABADIÑO
TXINURRISOLO: 38 m2-ko lokala. 495 € hilean / E.E.Z=E
SAN ANDRES KALEA: 11 m2-ko lokala. 40.000 € / E.E.Z=bidean.
ALIENDALDE: 285 m2-ko pabilioia. LEHEN 250.000€ / ORAIN 210.000 €
IURRETA
ZUBIAURRE: 11 m2-ko lokala. 20.000€ negoziagiarrak.
BERRIZ
EITUA: 500 2-ko pabilioia. 570.000 €

Erreztailea



MAITE
EUBA AREITIOAURTENA

Orain ondo bizi zara, ezta? Azken bi urteetan sarritan egin didate galdera hori. Zer pentsatu eman dit, egia esan. Aurretik ez nintzen ondo bizi ala? Kurioso da zelan lotzen ditugun sarritan lana= bizitza txarra. Ostera, langabeziaren kasuan ez dugu horrelakorik aipatzen; berez ei da okerra hori. Egia da. Onartzen dut, onartzen diet ondo bizi naizela baina... gustatzen zait gaineratzea inguruko bizitza ere majo mejoratu dela ni "libre" nagoenetik, eta horrek azalpena dakar; orain lan arauturik egiten ez dudanez, denbora ei daukat hainbat zeregine-tarako: lagunak artatzeko, familiari laguntzeko, patxadaz kozi-natzeko, garbitzeko, ordenatzeko, entzuteko, aholkatzeko; berba baten, ERRAZTEKO. Inguruko bizitza eta norberarena errazteko. Horrexegatik diotset ogibide berrian ari naizela; bideratzen, hain zuzen ere. Gustura egokitu naiz ofizio berrira baina aitortu/onartu behar dut behin-behineko kontratua dela, edozein momentutan eten daitekeela. Litekeena da beste zeregin/asmo batzuk agertzea eta "Libre" naizenez/nagoenez, dena delako horretan murgiltzea: dela bidaia, dela lagunekin planak edo bestelako zoroaldiren baten. Jakina, borondatezkoa izanda, bideratzailea izateko bokazioa behar da, beste askotan legez dirutan ordaindu ezin dena. Erreztaileak eta bere inguruak ondo dakite disfrutatzen aukera dagoenean, eta ezin denean, zain, irrikatzen egoten.

"Kirol irakasle legez, euskaragaz konpromiso bat dudala sentitzen dut"

MIKEL CARRACEDO LIZUNDIA IRAKASLEA

A. Basauri ABADIÑO

Mikel Carracedok (Abadiño, 1993) *grappling* eta Brasilgo jiu jitsu eskolak ematen ditu Traña-Matienan, ume zein helduentzat. Bada, hiztegi bat sortu du arte martzialen dizi-plina horiek euskaraz bizi eta praktikatzeko, eta programa bat osatu du kirol horietan euskararen erabilera barneratzeko. Euskadiko Borroka eta Sanbo Federazioaren atarian dago eskuragarri.

Zelan ezagutu zenituen 'grappling'-a eta Brasilgo jiu-jitsua?

Beti gustatu zait borroka eta arte martzialen mundua, eta arte martzial mistoen gorakadagaz batera nabarmen igo ziren *grappling*-a eta Brasilgo jiu-jitsua. Orain 20 urte ezagutu nituen, eta probatu nuenetik maiteminduta naukate.

Zerk erakarri zintuen?

Aurkaria kolperik eman barik menderatu zenezake eta oso deigarria egin zitzaidan hori. Ikuslearen aldetik baliteke hori ez ulertzea, baina behin praktikatzeko hasita konplexutasun hori ulertzen duzu. Horrek liluratu ninduen.

Zaletasun handia dago eskualdean?

Geroago eta gehiago zabaltzen dabilzan arren, kirol minoritarioak dira oraindino. Badira hamar urte Durangaldean zabaldu zela. Batzuk Durangora etorritako brasildar batez hasi ginen, eta zaletasuna handituz joan da harrezkero. Orain gehiago gara kirol hauek praktikatzeko ditugunak, ume zein heldu.



Mikel Carracedo.

Mundu osoan izan den gorakadagaz batera egin du zaletasunak gora Durangaldean ere.

'Grappling'-a eta Brasilgo jiu-jitsua euskarara ekarri dituzu.

Brasilgo jiu-jitsuak Japonian du jatorria. Irakasle japoniar batek erakutsita sartu zen Brasilen. Judotik eratorritako kirola izanik, teknika batzuek terminologia japoniarra mantentzen dute. Baina beste askok terminologia portugesa dute, Brasilen sorturiko sistema delako. Mundura zabaltzerakoan, ingelese ere sartu zen. Espainian



sartzean gaztelaniara itzuli zen teknika edo giltz asko. Eskolak gaztelaniaz ematen hasi nintzen ni, halaxe jaso nituelako nik ere. Baina umeekin lanean hasita, ikusi nuen euskara behar-ko genukeela. Eta, jakina, hiztegi bat sortzera animatu nintzen.

Zelan sortu duzu hiztegia?

Japonierazko berbak mantendu ditut, itzulpen guztietan judotik datozen mugimenduen izenak errespetatu egin direlako. Baina portugesez, ingelesez eta gaztelaniaz dagoen terminologia itzuli dut. Berbaz berba itzuli nituen hasieran, baina teknika bera ulertu eta deskribatzeko berba aproposak aurkitzeko lanean jarraitzen dut.

Ez zen lan erraza izango.

Ez. Unai Campo ikaslearen laguntza izan dut; euskal filologoa da bera. Ahalik eta ondoen egin ten ahalegindu naiz, baina prest nago aldaketak edo ekarpen berriak jasotzeko.

Amaierarik ez duen lana da.

Bai, baina behintzat badugu euskarri bat lanean jarraitzeko, eta pozik nago. Brasilgo jiu-jitsua oso zabala da eta *grappling* teknika mordoa dago. Denak itzultzea lan handia da eta baten bat itzuli barik geratu da, baina umeekin aspaldi hasi nintzen eskolak euskaraz ematen.

Zerk motibatu zintuen?

Kirol irakasle legez, euskaragaz konpromiso bat dudala sentitzen dut eta hortik abiatuta hasi nintzen umeekin lanean. Izan-dako harrera ikusita, helduekin hasi nintzen gero, baina batzuek ez zekiten euskaraz, eta euskararen normalizaziorako programa bat diseinatu dut, hiru fasetan garatzeko. Kirol hauek euskaraz praktikatzeko testuinguru edo espazioak sortzea eta zabaltzea da helburua. Ametsa dut hori.

Motzean

Jiu-jiutsuko giltza bat?

Antzar Heltzea.

Mendia ala hondartza?

Hondartza.

Bidaia bat?

Asko ditut egiteko... Filipinak.

Arte martzialetan aritzeko behar da...

Konstantzia.

'Granpling' borroka eta jiu-jitsua zer dira...

Xakea.

Ostirala 18

10:00 - 20:00 **DURANGOKO DENDAK KALEAN**
Deskontuak eta eskaintza bereziak dendetan.

16:30 - 20:00 **PUZGARRIAK ETA AURPEGI-MARGOKETA**
9. Kultur Plaza

Larunbata 19

10:00 - 13:30 **DURANGOKO DENDAK KALEAN**
Deskontuak eta eskaintza bereziak dendetan.

10:00 - 13:30 **LUDOTEKA, JOKO ERREALDOIAK ETA AURPEGI-MARGOKETA**
9. Andra Mari Etxea

12:30 - 14:30 **KANTU-POTEOA TXEROKIAK TALDEAREKIN**
9. Xabier Zubizarreta

Lapurrezaleak

Antzerkia

608 738 702

Dendak Bai

www.dendakbai.eus